

EAE-KO BIOTOPO BABESTUEN
AZTERKETA, BABES-FIGURA
HORI EUSKADIKO NATURA-
ONDAREA KONTSERBATZEARI
BURUZKO 9/2021 LEGERA
EGOKITZEKO

2022



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Ingurune naturala

EAE-KO BIOTOPO BABESTUEN AZTERKETA, BABES-
FIGURA HORI EUSKADIKO NATURA-ONDAREA
KONTSERBATZEARI BURUZKO 9/2021 LEGERA
EGOKITZEKO

2022

Data 2022ko ekaina

Egileak **Lanaren zuzendaritza eta azken idazketa:**
Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza. Ekonomiaren Garapen,
Iraunkortasun eta Ingurumen Saila. Eusko Jaurlaritza

Lan teknikoak:

Biosfera XXI
Estudios Ambientales

Azaleko argazkia **CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Gobierno Vasco/Mikel Arrazola**

Jabea Eusko Jaurlaritza.



 **euskadi.eus**

www.euskadi.eus

Edukia

1	Sarrera eta lege-testuingurua	1
2	Helburuak.....	2
3	Lanen garapena	2
4	Informazioa biltzea	2
5	Biotopo babestuen adierazpen- eta kudeaketa-dokumentuak aztertzea	6
6	Biotopo babestu bakoitzerako NKNB kategoria bat proposatzea: metodologia	7
7	Biotopo babestuak babesteko tipologia berria proposatzea	11
7.1	Babes-figura berri bat esleitzeko metodologia aplikatzea.....	13
8	Biotopo babestuen azterketa: emaitzak	14
8.1	Añanako diapiroko biotopo babestua	15
8.1.1	Informazioaren azterketa	16
8.1.2	NKNB kategoriaren proposamena.....	18
8.1.3	Naturagune babestuaren tipologia berria proposatzea	21
8.2	Gaztelugatxe biotopo babestua	23
8.2.1	Informazioaren azterketa	24
8.2.2	NKNB kategoriaren proposamena.....	25
8.2.3	Naturagune babestuaren tipologia berria proposatzea	26
1.1.	Inurritza biotopo babestua	29
8.2.4	Informazioaren azterketa	30
8.2.5	NKNB kategoriaren proposamena.....	31
8.2.6	Naturagune babestuaren tipologia berria proposatzea	33
8.3	Laguardiako aintziren biotopoa	36
8.3.1	Informazioaren azterketa	37
8.3.2	NKNB kategoriaren proposamena.....	38
8.3.3	Naturagune babestuaren tipologia berria proposatzea	40
8.4	Meatzaldea-Zona Minera de Bizkaia biotopo babestua.....	42
8.4.1	Informazioaren azterketa	43
8.4.2	NKNB kategoriaren proposamena.....	45
8.4.3	Naturagune babestuaren tipologia berria proposatzea	47
8.5	Leizaran ibaiko biotopo babestua.....	49
8.5.1	Informazioaren azterketa	50
8.5.2	NKNB kategoriaren proposamena.....	51
8.5.3	Naturagune babestuaren tipologia berria proposatzea	53
8.6	Deba-Zumaia arteko itsasertzeko biotopo babestua.....	55

8.6.1	Informazioaren azterketa	56
8.6.2	NKNB kategoriaren proposamena.....	60
8.6.3	Naturagune babestuaren tipologia berria proposatzea	61
8.7	Itxinako mendiguneko biotopo babestua.....	64
8.7.1	Informazioaren azterketa	65
8.7.2	NKNB kategoriaren proposamena.....	66
8.7.3	Naturagune babestuaren tipologia berria proposatzea	67
9	Ondorioak.....	69

1 Sarrera eta lege-testuingurua

Euskal Autonomia Erkidegoko natura-ondarearen kontserbazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko 16/1994 Legearen bidez egituratu zen juridikoki. Lege hori aitzindaria izan zen bere garaian, eta esparru juridikoa ematen zien baliabide naturalak, gunee babestuak eta flora eta fauna kontserbatu eta antolatzeari. 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu batagina onartu zen, 16/1994 Legearen ondoz ondoko aldaketak integratzeko.

Hala ere, Europako jarraibideetatik eratorritako lege-garapen garrantzitsuak, batez ere 2000. urtetik aurrera, EAEko legegintza-esparrua eguneratzeko beharra ekarri du, egungo arazoei eta eskakizunei erantzuteko, eta erregulazio berria Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuetan eta Basque Country 2030 Agendan kokatu behar da. Hala, 2021ean Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legea onartu zen.

Lege horrek natura-ondarearen kontzeptua ikuspegi integral batetik lantzen du, zeinak barne hartzen baititu dibertsitate biologikoarekin eta geologikoarekin lotutako natura-ondasunak, -baliabideak eta -zerbitzuak. Horiek funtsezko balioa dute ingurumenean, paisaian, zientzian edo kulturaren, eta lotura estua dute pertsonen osasunarekin eta ongizatearekin, eta garapen sozial eta ekonomikoarekin.

9/2021 Legearen 37. artikulua eremu babestuen tipologia definitzen du, eta honela sailkatzen ditu:

- a) Naturagune babestuak
- b) Natura 2000 Sareko naturagune babestuak
- c) Gune babestuak nazioarteko tresnak aplikatzearen ondorioz.

Naturagune babestuek hauek hartzen dituzte barnean: parke naturalak, natura-erreserbak, natura-monumentuak eta paisaia natural babestuak.

16/1994 Legean, naturagune babestuak hiru kategoriatan sailkatzen ziren: Natura-parkea, Biotopo babestua eta Zuhaitz apartekoa. Biotopo babestuak, lege horren ondoretarako, oinarritzko legeetan natura-erreserba, natura-monumentu eta paisaia babestu izena ematen zaien naturaguneak dira. Bakan, hauskor, garrantzitsu edo aparteko izateagatik estimazio berezia merezi duten ekosistemak, komunitateak, elementu biologikoak, interes geologikoa duten inguruak eta ingurune naturaleko leku jakinak eta formazio apartekoak, bakanak, bereziki ederrak edo interes zientifiko nabarikoak babesteko sortuak dira biotopo babestu horiek.

Gaur egun, EAEn zortzi gune sailkatu dira biotopo babestu gisa: Añanako diapiroa, Gaztelugatxe, Inurritza, Laguardiako aintzirak, Itxina, Meatzaldea, Leitzaran ibaia eta Deba-Zumaia arteko itsasertza. Itxinako biotopo babestua Gorbeia Parke Naturalaren barruan dago.

EAEko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko egungo legean biotopo babestua desagertu egiten dela kontuan hartuta, beharrezkoa da kategoria horretan izendatutako guneak aztertzea eta 9/2021 Legearekin bat datorren tipologia berri bat berresleitzea, lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.



2 Helburuak

Laguntza tekniko honen helburua da gaur egun biotopo babestuaren tipologia izendatutako guneak aztertzea eta babes-figura hori 9/2021 Legea egokitzea, gune horiei egungo legeriarekin bat datorren babes-figura bat berresleitzuz.

Hauek dira laguntza teknikoaren helburu zehatzak:

- Añanako diapiroko, Gaztelugatxeko, Inurritzako, Laguardiako aintziretako, Meatzaldeko, Itxinako mendiguneko, Leitzaran ibaiko eta Deba-Zumaia arteko itsasertzeko biotopo babestuen adierazpen- eta kudeaketa-dokumentuak aztertzea.
- Naturagune babestu tipologia bat proposatzea horietako bakoitzerako, kontserbazio-helburuak eta kudeaketa-dokumentuak kontuan hartuta, 9/2021 Legearen 37. artikularen arabera: natura-erreserba, natura-monumentua edo paisaia natural babestua.
- Gune horiei babestutako eremuen NKNB kategoria bat esleitzea.

3 Lanen garapena

Planteatutako helburuak lortzeko, lana lau fasetan egin da:

- Informazioa biltzea eta lanak antolatzea.
- Biotopo babestuen adierazpen- eta kudeaketa-dokumentuak aztertzea.
- Biotopo babestu bakoitzerako NKNB kategoria bat proposatzea.
- Biotopo babestuetarako naturagune babestuaren tipologia berria proposatzea.

Fase bakoitzean, proiektuaren zuzendaritza teknikoarekin lankidetzan estuan burutu da lana, eta aldi behin bilerak egin dira, koordinazio egokia ahalbidetzeko.

Hona hemen ezarritako fase bakoitzaren emaitzak.

4 Informazioa biltzea

Laguntza tekniko honen xedearekin lotutako legeria guztia bildu da, bai eta adierazpen- eta kudeaketa-dokumentuak eta aintzat hartutako 8 biotopoen intereseko beste dokumentu batzuk ere. Hauek dira biotopoak: Añanako diapiroa, Gaztelugatxe, Inurritza, Laguardiako aintzirak, Meatzaldea, Itxina, Leitzaran ibaia eta Deba-Zumaia arteko itsasertza. Gainera, gune horiei NKNB kategoria esleitzeko informazio garrantzitsua bildu da.

2 Jarraian, aztertutako dokumentazioaren zerrenda jaso da:

Legeria eta dokumentazio orokorra

- 128/2019 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez behin betiko onesten baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak.¹
- 9/2021 LEGEA, azaroaren 25ekoa, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzkoa².
- Euskal Autonomia Erkidegoko Geodibertsitatearen Estrategia. 2020. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritzaz³.
- 160/2004 DEKRETUA, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duena⁴.

Añanako diapiroko biotopo babestua

- 85/2016 DEKRETUA, maiatzaren 31koa, Caicedo Yuso eta Arreoko aintzira (ES2110007) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu eta Añanako Diapiroko Biotopo Babestua deklaratzeko duena (HUTSEN ZUZENKETA, honako dekretu honena: «85/2016 Dekretua, maiatzaren 31koa, Caicedo Yuso eta Arreoko aintzira (ES2110007) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu eta Añanako Diapiroko Biotopo Babestua deklaratzeko duena»)⁵.
- 37/2017 EBAZPENA, martxoaren 1ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariarena, Añanako Diapiroko Biotopo Babestuaren eta Caicedo Yuso eta Arreoko aintzira (ES2110007) Kontserbazio Bereziko Eremuaren Jarraibideak eta Kudeaketa Neurriak argitaratzea xedatzen duena⁶.

Gaztelugatxe aldeko biotopo babestua

- 229/1998 DEKRETUA, irailaren 15ekoa, Gaztelugatxe aldea babespeko biotopotzat deklaratzeko duena⁷.
- 358/2013 Dekretua, ekainaren 4koa. Horren bidez, Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzen dira Urdaibai eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuan dauden Batasunaren Garrantzizko 4 Leku, eta onartu egiten dira KBE horien eta Urdaibaiko itsasadarreko HBBEaren kontserbazio-neurriak⁸.
- Gaztelugatxeko Donieneko biotopo babestuaren (Bizkaia) erabilera publikoaren harrera-ahalmenari buruzko azterlana egitea. 2020. Europarc/Españaiko bulego tekniko⁹.

Inurritzako biotopo babestua

- 40/1997 DEKRETUA, otsailaren 25ekoa, Inurritza ingurua babestutako biotopo deklaratzeko duena¹⁰.

¹ <https://www.euskadi.eus/lurralde-antolamenduaren-gidalerroak-lag/web01-a2lurral/eu/>

² <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2021/12/2106152e.pdf>

³ https://www.euskadi.eus/plana_programa_proiektua/euskal-autonomia-erkidegoko-geodibertsitatearen-estrategia-2020/web01-a2ingdib/eu/

⁴ https://www.euskadi.eus/contenidos/decreto/bopv200405964/eu_def/

⁵ <https://www.legegunea.euskadi.eus/eu/eli/-/eli/es-pv/d/2016/05/31/85/dof/eus/html/>.

⁶ <https://www.legegunea.euskadi.eus/eu/eli/-/eli/es-pv/res/2017/03/01/37/dof/eus/html/>

⁷ <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd1998004648>

⁸ <https://www.legegunea.euskadi.eus/eu/eli/-/eli/es-pv/d/2013/06/04/358/dof/eus/html/>

⁹ <chrome-extension://efaidnbmnnnibpcajpcglclefindmkaj/https://redeuroparc.org/wp-content/uploads/2022/05/boletin48.pdf>

¹⁰ <https://www.legegunea.euskadi.eus/eu/eli/-/eli/es-pv/d/1997/02/25/40/dof/eus/html/>

- 215/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko dena. Inurritza KBEa kontserbatzeko neurriak¹¹.
- Inurritza Kontserbazio Bereziko Eremuko duna-habitatak berreskuratzeko ekintza-plana, LIFE + ARCOS proiektuaren barruan. 2013-2018. Gipuzkoako Foru Aldundia¹².
- EBAZPENA, 2021eko maiatzaren 3koa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez egiten baita Zarauzko Real Golf Klubaren (Gipuzkoa) instalazioen eta zelaiaren jarduera-proiektuaren ingurumen-inpaktuaren txostena¹³.

Laguardiako aintziretako biotopo babestua

- 417/1995 DEKRETUA, irailaren 19koa, Lauardiako Carralogoño, Carravalseca eta Prao de la Paul urmaelak babestutako biotopo izendatu zituena¹⁴.
- 255/1998 DEKRETUA, irailaren 29koa, Carralogoño, Carravalseca eta Prao de la Paul izeneko aintzirak babestutako biotopotzat deklaratu zituen dekretua aldatzen duena, Musco izena duen aintzira biotopo horren eremuan sartu ahal izateko¹⁵.
- 34/2016 DEKRETUA, martxoaren 1ekoa, Laguardiako Aintzirak (ES2110021) Kontserbazio Bereziko Eremua izendatzen duena eta Laguardiako Aintziren Biotopo Babestuaren araudia eta mugaketa aldatzen dituena¹⁶.
- 36/2017 EBAZPENA, martxoaren 1ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariarena, Laguardiako Aintziren Biotopo Babestuaren eta Laguardiako Aintzirak (ES2110021) Kontserbazio Bereziko Eremuaren Jarraibideak eta Kudeaketa Neurriak argitaratzea xedatzen duena¹⁷.

Meatzaldea-Zona Minera de Bizkaia biotopo babestua

- 26/2015 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, Meatzaldea-Zona Minera de Bizkaia, Biotopo Babestua izendatzeko dena. Dekretu hori gunea kudeatzeko tresna da¹⁸.

Leitzarar ibaiko biotopo babestua

- 416/1995 DEKRETUA, irailaren 29koa, Leitzarar ibaia babestutako biotopo deklaratu duena¹⁹.
- 215/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko dena. Leitzarar ibaiko KBEa (ES2020013) kontserbatzeko neurriak²⁰.

¹¹ <https://www.legegunea.euskadi.eus/eu/eli/-/eli/es-pv/d/2012/10/16/215/dof/eus/html/>

¹² chrome-extension://efaidnbmnnnibpcajpcglclefindmkaj/https://www.arcoslife.eu/arcosweb/wp-content/uploads/2018/10/Plan-de-Accion_Zarautz.pdf

¹³ <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2021003052>

¹⁴ <https://vlex.es/vid/biotopo-carravalseca-prao-laguardia-15573858>

¹⁵ <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd1998004616>

¹⁶ <https://www.legegunea.euskadi.eus/eu/eli/-/eli/es-pv/d/2016/03/01/34/dof/eus/html/>

¹⁷ <https://www.legegunea.euskadi.eus/eu/eli/-/eli/es-pv/res/2017/03/01/36/dof/eus/html/>

¹⁸ <https://www.legegunea.euskadi.eus/eu/eli/-/dekretua/262015-dekretua-martxoaren-10ekoa-meatzaldea-zona-minera-de-bizkaia-biotopo-babestua-izendatzeko-dena/>

¹⁹ <chrome-extension://efaidnbmnnnibpcajpcglclefindmkaj/https://emf.eus/Docs/Legislacion/Biotopo%20Protegid>

¹⁹ <chrome-extension://efaidnbmnnnibpcajpcglclefindmkaj/https://emf.eus/Docs/Legislacion/Biotopo%20Protegid%20Rio%20Leizaran.pdf>

²⁰ <https://www.legegunea.euskadi.eus/eu/eli/-/eli/es-pv/d/2012/10/16/215/dof/eus/html/>

- 34/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (BBE) arau orokorrak onartzen dituena²¹.

Itxinako mendiguneko biotopo babestua

- 368/1995 DEKRETUA, uztailaren 11koa, Itxinako mendigunea babestutako biotopo deklaritzen duena²².
- 40/2016 DEKRETUA, martxoaren 8koa, Gorbeia kontserbazio bereziko eremu (ES2110009) izendatzen duena²³.
- 169/2019 DEKRETUA, urriaren 29koa, zeinaren bidez onartzen baita Gorbeia Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko II. Planaren zati arauemailea, eta agintzen Parke Naturalaren eta Gorbeia ES2110009 Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko II. Plana eta Kudeaketarako Gidalerroen eta Jarduketan Dokumentua osorik argitaratzeko²⁴.

Deba-Zumaia arteko itsasertzeko biotopo babestua

- 34/2009 DEKRETUA, otsailaren 10ekoa, Deba eta Zumaia arteko itsasertza Babestutako Biotopo izendatzen duena²⁵.
- 33/2009 DEKRETUA, otsailaren 10ekoa, Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko Natura Baliabideak Antolatzeke Plana onartzen duena²⁶.
- 0404/LI/2021 Foru Agindua, uztailaren 28koa, Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko Biotopo Babestuaren erabilera publikoaren eta laginketa geologikoen plana garatzen duena²⁷.

NKNB kudeaketa-kategoriak

- EUROPARC-España. 2005. Procedimiento de asignación de las categorías de manejo UICN a los espacios naturales protegidos. EUROPARC-Españaiko bulego tekniko²⁸.
- EUROPARC-España. 2008. Procedimiento para la asignación de las categorías internacionales de manejo de áreas protegidas de la UICN. Argtz. Fernando González Bernáldez Fundazioa Madril. 140 orrialde²⁹.

²¹ <https://www.legegunea.euskadi.eus/dekretua/342015-dekretua-martxoaren-17koa-ingurune-hidrikoari-lotuta-dauden-kontserbazio-bereziko-eremuetarako-kbe-eta-hegaztien-babes-bereziko-eremuetarako-bbe-arau-orokorrak-onartzen-dituena/weblegoo-confich/eu/>

²² <chrome-extension://efaidnbmnnnibpajpcglclefindmkaj/https://emf.eus/Docs/Legislacion/Biotopo%20Protegid%20el%20macizo%20de%20Itxina.pdf>

²³ <https://www.legegunea.euskadi.eus/eu/eli/-/eli/es-pv/d/2016/03/08/40/dof/eus/html/>

²⁴ <https://www.legegunea.euskadi.eus/eu/eli/-/eli/es-pv/d/2019/10/29/169/dof/eus/html/>

²⁵ [https://www.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2009/02/10/\(1\)/dof/eus/html/web01-a2libzer/eu/](https://www.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2009/02/10/(1)/dof/eus/html/web01-a2libzer/eu/)

²⁶ <https://www.legegunea.euskadi.eus/eu/eli/-/eli/es-pv/d/2009/02/10/33/dof/eus/html/>

²⁷ <chrome-extension://efaidnbmnnnibpajpcglclefindmkaj/https://egoitza.gipuzkoa.eus/ogasuna/normativa/docs/0001217c.pdf>

²⁸ <chrome-extension://efaidnbmnnnibpajpcglclefindmkaj/https://biofund.org/mz/wp-content/uploads/2018/12/1543911959-F2025.Procedimiento%20De%20Asignacion%20De%20Las%20Categorias%20De%20Manejo%20Uicn%20A%20Los%20Espacios%20Naturales%20Protegidos%20Del%20Estado%20Español.Pdf>

²⁹ <https://www.miteco.gob.es/es/ceneam/recursos/materiales/procedimiento-areas-uicn.aspx>

- Dudley, N. (Editorea) (2008). Eremu babestuak kudeatzeko kategoriak aplikatzeko jarraibideak. Gland, Suitza: NKNB. x + 96 orr³⁰.
- De la Vallina, B., Aranda, Y. eta García Moral, R. 2020. Eremu babestuetako NKNB kategoriak esleitzeko protokoloa ezartzeko laguntza teknikoa, Espainiako errealitatera egokitua. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa. Kontratazio-espedita: N°20MNSV003. Biosfera XXI, Estudio Ambientales SL (argitaratu gabeko txostena).

Kontsultatutako web orriak

- Biotopo babestuen informazioa: <https://www.euskadi.eus/web01-a3diblek/es/u95aWar/lugaresJSP/U95aSubmitFiltroCAPV.do?u95aMigasPan=L%2C5%2C1%3B&codMarcoProteccion=&codDesignacion=&tipoBusqueda=5&orden=3&ver+lugares%234%238=ver+lugares>
- Kartografia:
 - <https://www.geo.euskadi.eus/geobisorea/?lang=eu>
 - <https://www.geo.euskadi.eus/deskarga-zerbitzua/webgeo00-content/eu/>

5 Biotopo babestuen adierazpen- eta kudeaketa-dokumentuak aztertzea

Informazio egokia bildu ondoren, horren azterketa zehatza egin da, bereziki aintzat hartutako biotopoen adierazpen- eta kudeaketa-dokumentuena.

Laburpen-taula bat egin da gune babestu bakoitzerako, dokumentu horietako informazio garrantzitsuarekin. Horri esker, argi eta garbi aurkez daitezke gunea izendatzeko helburuak, eremua kudeatzeko helburu nagusiak eta ezarritako erabilerak (baimendutakoak, debekatuak edo sustatuak).

Biotopo babestu bakoitzari buruzko informazioaren azterketari esker, biotopo bakoitzari NKNBren kudeaketa-kategoria bat esleitu ahal izan zaio, bai eta babes-figurari buruzko proposamen berria ere, 9/2021 Legean naturagune babestuetarako ezarritako tipologia berriak kontuan hartuta.

Kabinetearen azterketa egin ondoren, landa-bisita bat egin da biotopo guztietara, esleitutako figura eta NKNB kategoria egokia al den *in situ* ikusteko eta egiaztatzeko. Landa-bisita 2022ko maiatzaren 24, 25 eta 26an egin zen.

³⁰ [chrome-](#)

6 Biotopo babestu bakoitzerako NKNB kategoria bat proposatzea: metodologia

Gunearen adierazpen- eta kudeaketa-helburuen eta ezarritako erabileren xehetasun-azterketa eta identifikazioa kontuan hartuta, NKNBren kudeaketa-kategoria bat esleitu da aintzat hartutako biotopo babestu bakoitzerako. Prozesu honetarako, kontuan hartu dira NKNB kategoriak definitzeko dokumentazioa eta horiek esleitzeko eskuliburuak, batez ere:

- EUROPARC-España. 2005. Procedimiento de asignación de las categorías de manejo UICN a los espacios naturales protegidos. EUROPARC-Españaiko bulego teknikoa.
- EUROPARC-España. 2008. Procedimiento para la asignación de las categorías internacionales de manejo de áreas protegidas de la UICN. Argitz. Fernando González Bernáldez Fundazioa Madril. 140 orrialde.
- Dudley, N. (Editorea) (2008). Eremu babestuak kudeatzeko kategoriak aplikatzeko jarraibideak. Gland, Suitza: NKNB. x + 96 orr.

Era berean, esleipen hau egiteko, dokumentu argitaragabe bat hartu da kontuan. Dokumentu hori MITECOren laguntza teknikoaren emaitza da, Biosfera XXI taldeak egina, eremu babestuetako NKNB kategoriak esleitzeko protokolo bat ezartzeko, Espainiako errealitatera egokitua.

NKNBk eremu babestuen kategoria-sistema bat garatu zuen 1978an, horiek antolatzen eta definitzen laguntzeko. Eremu babestuak kudeatzeko kategorien sistema horren helburua zen eremu babestuen zerizanaz ados jartzea guztiak eta nazioarteko erreferentzia-esparru bat sortzea, bai herrialdeen artean, bai herrialdeen barruan. Eremu babestuen kudeaketa-kategoria horiek ere balio izan dute eremu babestuen sistemak sustatzeko, terminologia-nahasmena murrizteko eta nazioarteko datu-base konparagarriak ezartzeko, besteak beste, Nazio Batuen Eremu Babestuen Datu Basea (WDPA, World Database on Protected Areas).

NKNBk eremu babestu gisa definitzen du natura eta lotutako ekosistemen kultura-balioak eta zerbitzuak epe luzera kontserbatzea lortzeko argi eta garbi definitutako, aintzatetsitako, eta horretan jarduten duen eremu geografikoa, legezko bitartekoen bidez eta beste bitarteko eraginkor batzuen bidez kudeatua³¹.

Definizioa sei kudeaketa-kategoriaren bidez zabaltzen da (horietako batek azpiatala du), eremuaren kudeaketa-helburu nagusietan oinarrituta. Kategoria kudeaketa-helburu nagusiaren arabera da, eta gutxienez eremu babestuaren hiru laurdeni aplikatu behar zaio (% 75eko araua). Hona hemen kategoria horiek:

I.a kategoria - Natura-erreserba zorrotza: biodibertsitatea eta, beharbada, beste ezaugarri geologiko/geomorfologiko batzuk zorrotz babesteko ezarria, non giza presentzia, erabilerak eta inpaktuak kontrolatuak eta mugatuak diren kontserbazio-balioak babestea ziurtatzeko.

I.b kategoria - Basa-eremua: eraldatu gabeko edo apur bat eraldatutako eremu zabalak izan ohi dira. Natura-izaera eta -eraginari eusten diote, ez dago giza presentzia iraunkor edo esanguratsurik, eta babestu eta kudeatu egiten dira beren natura-izaera babesteko.

31. Dudley, N. (Editorea) (2008). Eremu babestuak kudeatzeko kategoriak aplikatzeko jarraibideak. Gland, Suitza: NKNB. x + 96 orr.



II. kategoria - Parke nazionala: eremu natural edo ia natural zabalak dira. Eskala handiko prozesu ekologikoak babesten dituzte espezie eta ekosistema bereizgarriekin, eta aukera espiritualak, zientifikoak, hezkuntzakoak, aisialdikoak eta turistikoak eskaintzen dituzte, ingurumenaren eta kulturaren aldetik bateragarriak direnak.

III. kategoria - Natura-monumentu edo -ezaugarria: berariazko natura-monumentu bat (elementu geografiko bat, urpeko mendi bat, urpeko haitzulo bat), ezaugarri geologiko bat (haitzulo bat) edo ezaugarri bizi bat (antzinako mangladi bat) babesteko erreserbatutako eremuak.

IV. kategoria - Habitata/espezieak kudeatzeko eremua: espezieak edo habitata babesteko eremuak; kudeaketak horren lehentasuna islatuko du. Eremu horietako asko ohiko esku-hartze aktiboak behar dituzte espezieen edo habitaten premiei heltzeko, baina ez da kategoriaren baldintza bat.

V. kategoria - Lehorreko/itsasoko paisaia babestua: non gizakien eta naturaren arteko elkarrekintzak denborarekin ezaugarri bereizle bat sortu duen, ordena ekologikoan, biologikoan, kulturean eta estetikoan balio esanguratsua duena; non elkarrekintza horren osotasuna babestea ezinbestekoa den eremua eta naturaren kontserbazioa eta lotutako beste balio batzuk babesteko eta mantentzeko.

VI. kategoria - Natura-baliabideen erabilera jasangarria duten eremu babestuak: ekosistemak mantentzen dituzten eremuak, kultura-balioekin eta eremuotako natura-baliabideak kudeatzeko sistema tradizionalekin batera. Oro har, zabalak izaten dira, eta eremuaren zatirik handiena baldintza naturaletan egoten da; alde batetik, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria izaten da, eta, bestetik, eremuaren helburu nagusietako bat da baliabide naturalen erabilera ez-industrialia eta maila baxukoa izatea, naturaren kontserbazioarekin bateragarria dena.

42/2007 Legearen 51.2 artikulua ezartzen duenez, Naturagune Babestuen Espainiako Inbentarioaren, Natura 2000 Sarearen eta nazioarteko tresnek babestutako eremuen barruan, «homologazioari eta arlo horretako nazioarteko konpromisoak betetzeari dagokienez, Naturagune Babestuen Espainiako Inbentarioan inskribatutako naturaguneak, jatorrizko izenarekin batera, nazioartean ezarritako kategoriei esleituko zaizkie, bereziki Naturarako Nazioarteko Batasunak (NKNB) ezarritakoei». Esleipen hori funtsezko baldintza da datuen elkarrengarritasunerako eta datuak nazioz gaindiko datu-baseetan integratzeko: CDDA (Common Database on Designated Areas) eta WDPA (Eremu Babestuen Munduko Datu Basea), batez ere.

CDDA (Common Database on Designated Areas) oinarritzko datu eguneratuen fluxua da, eta Europar Batasuneko eremu babestuei eta legegintza-tresnei buruzko informazioa biltzen du. Nazio mailan izendatutako lekuei, Europako Esparru Ekonomikoko (EEE) herrialde kideei eta herrialde lankideei buruzko datuak jasotzen ditu. Gainera, CDDA da Europako herrialdeetako eremu babestuei buruzko informazio-iturri ofiziala Eremu Babestuen Munduko Datu Basean (WDPA)³².

Espainiako Estatuan askotariko babes-figura legalak daudenez, are beharrezkoagoa da NKNB kategorien sistema ezartzea, eta hala, guneen arteko analogiak egin ahal izatea, komunikazioa eta truke profesionalak errazte aldera.

Biosfera XXIeko taldeak laguntza teknikoa eman zion 2020an Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari, Espainiako errealitatera egokitutako eremu babestuen NKNB kategoriak esleitzeko protokoloa ezartzeko (Kontratazio-espeditente zk.: 20MNSV003. Argitaratu gabeko txostena).

Horren ondorioz, zuhaitz xume eta praktikoa bat garatu zen, gunea izendatzeko eta kudeatzeko helburuetan oinarritua, baiezko eta ezezko galdera zehatz batzuen arabera. Behin gunea izendatzeko helburuak eta kudeaketa-helburuak eta horiei lotutako erabilerak argi eta garbi identifikatuta daudenean, eskema edo zuhaitz logikoa aplikatu, eta NKNB kudeaketa-kategoria bat esleitu dugu modu errazean, galdera argien bidez. Galdera horiek ez dute zalantzarik eragiten, eta erantzuna ere erraza da, bai/ez motakoa.

Zuhaitz hori 8 biotopo babestuei aplikatu zaie.

Esleipen-zuhaitza 8 biotopoei aplikatzeko, NKNBk zehaztutako irizpideetan eta EUROPARC-Españaren dokumentuetan oinarritutako prozedura honi jarraitu zaio:

1. **Informazio-iturriak biltzea eta aztertzea:** lehenengo urratsa da NKNB kategoria esleitu nahi diogun gunea kudeatzeko tresnari dagokion dokumentua aztertzea.
2. **Gunea izendatzeko helburuak eta irizpideak identifikatzea:** ondoren, kudeatzeko tresnari dagokion dokumentuan gune hori izendatzea eragin duten irizpideak eta helburu orokorrak identifikatzen dira.
3. **Gunearen zonakatzea identifikatzea, halakorik balego.**
4. **Eremu bakoitzaren helburu eta erabilera nagusiak identifikatzea:** NKNB kategoriak eremuaren kudeaketa-helburu nagusietan oinarrituta esleitu dira, helburu nagusiarekin bateragarriak diren erabileretan oinarrituta. Erabilera horiek finkatuta daude eremuan, eta bat datoz eremuaren kudeaketa-helburuekin.
5. **NKNB kategoriak esleitzeko zuhaitza aplikatzea guneko eremu bakoitzari:** guneko eremuak eta horien helburuak eta erabilerak identifikatu ondoren, dagokion kategoria aplikatuko dugu, hau da, kategoriak esleitzeko zuhaitzetik lortua. Kategoria gune osoari esleitu zaio; aldiz, zonakatzea badago, ezarritako eta identifikatutako kudeaketa-helburuak dituen eremu bakoitzari.
6. **Esleitutako kategoria bakoitzaren egiaztapen-zuhaitza:** kategoria bakoitzerako egiaztapen-zuhaitz bat eraiki da, esleipena zuzena den egiaztatu ahal izateko.
7. **Gunearen azken kategoria esleitzea:** gune osoari hobekien egokitzen zaion azken kategoria esleitzea. NKNB kategorien esleipena eremuaren zonakatzea kontuan hartuta egiten bada ere, proposamen metodologiko honetan gunerako kategoria orokor baten esleipena jasotzen da, eremuari dagokion zonakatzea gorabehera, eta eremuaren helburu orokorrak kontuan hartuta.

Biotopo bakoitzari kategoriak esleitzeko, honako alderdi hauek hartu dira kontuan:


1. Esleipen-prozedura garatzeko, Europarc-España (2008) egindako NKNB kategorien egokitzearen abiatu da. Testuinguru horretan, adierazi behar da NKNB kategoriak Espainiako testuinguruan aplikatzeko zailtasunetako bat eremu babestuen tamainari buruzko adierazpenak erabiltzea dela, I.b eta II. kategorietarako eremu handiei dagokienez. Espainiako testuinguruari aplikatzean, adierazi behar da eremu babestuen tamaina ez dela faktore garrantzitsutzat hartu, baina nahiko garrantzi izan behar duela eremu babestuak helburuak lortu ahal izateko.
2. Kategoriak esleitzeko, prozedura xume bat garatu da, eta eremu babestu osoari aplikatu zaio, kudeaketa-tresnetan ezarritako zonakaterik ez badago.
3. Zonakatze bat ezarrita duten eremu babestuetarako, esleipen-prozedura zehaztutako zona bakoitzean aplikatu da³³. Ildo horretan, esan behar da, NKNBren jarraibideen arabera (2008), eremu babestu baten barruan hainbat zona kategorizatzea baimenduta dagoela, betiere hiru baldintza espezifiko betetzen badira:
 - (a) Argi eta garbi zehaztuta egon behar dute.

33 Day J., Dudley N., Hockings M., Holmes G., Laffoley D., Stolton S. & S. Wells, 2012. *Itsas Eremu Babestuetan NKNBko Eremu Babestuen Kudeaketa Kategoriak aplikatzeko jarraibideak*, Gland, Suitza: NKNB. 36 orr.

- (b) Lege-esparru baten edo beste bitarteko eraginkor baten bidez aitortuta egon behar dute.
- (c) Ereku babestu jakin bati esleitzen dakizkiokeen kudeaketa-helburu desberdinak izan behar dituzte, anbiguoak ez direnak.

Hau da, zonen kategorizazio bereizia posible da oinarrizko legeriak zonak eremu babestu baten barruan deskribatzen eta zehazten dituenean, baina ez oinarrizko legeriak eremu babestu batean zonakatzeko besterik baimentzen ez duenean, hala nola kudeaketa planifikatzeko prozesuetan.

4. Oro har, eremu babestuaren barruko zonakatzeko onargarriak izango ez liratekeen erabilerak ahalbidetu ditzake, eremu osoari eraginez gero. Hala ere, gunearen % 75 gutxienez kudeaketa-helburu berberen arabera eta izendapen-helburu nagusiekin bat etorritik kudeatzen denean³⁴, kategoria bakarra ezartzen da gune babestu osorako. Dena den, egokitzen jotzen den gunetan, KNKB kategoria desberdina esleitu ahal izango da zonan-zonan.
5. KNKB kategoriari esleitzeko, eremuaren kudeaketa-helburu nagusiak hartu dira oinarritzat, eta laguntza gisa, berriz, helburu nagusiarekin bateragarriak diren eremu-erabilera finkatuak; kontuan hartu da eremu babestu batean baimendutako erabilerak eremu horrek dituen helburuen arabera izango direla.
6. Kategoriari esleitzeko prozedura gunea izendatzeko helburuetan eta eremu bakoitzari lotutako helburu eta erabileretan oinarritzen da, ezarritako zonakatzearen arabera (halakorik balego). Ildo horretan, esleipen-zuhaitzak eremu babestuaren kudeaketa-helburuekin bat datozen eremu-erabilera finkatuak jasotzen ditu (baimenduak, debekatuak edo sustatuak).



KNKB KATEGORIAK ESLEITZEKO ZUHAITZ LOGIKOA

- (1) **Erabilera oso mugatuak:** oso mugatutzat jotzen da erauzketa-jarduerak oso mugatuta daudenean eta halakoak baliatzen direnean ekosistemen naturaltasuna kontserbatzera eta berreskuratzera bideratutako kudeaketa-tresna gisa (adibidez, untxia Teideko Parke Nazionalen sartutako espezie gisa kontrolatzea; Ordesako abeltzaintza).
- (2) **Erabilera publikoa:** erabilera publikoak barne hartzen ditu bisitarien naturarekiko harremana eta balioen ezagutza sustatzeko antolatutako eta egituratutako jarduerak, gunea kudeatzeko helburuetan jaso badira.
- (3) **Ekosistemen osotasuna:** osotasun ekologikoa da ekosisteman elementu eta prozesu berezko guztiak egotea; alegia, sistemak gaitasun handiagoa du materia eta energia prozesatzeko, antolaketa eta eraginkortasun hobea izango du energiaren transferentzian eta degradazioan, eta perturbazioei aurre egiteko gai izango da. Definizioz, osotasun maximoak baztertu egiten ditu energia xahutzen eta ekosistema desantolatzen duten giza jarduerak (NKNB, 2008). Onargarriak dira intentsitate txikiko aprobetxamendu mota batzuk, ekosistemen egitura eta/edo funtzionamendua nabarmen aldatzea eragiten ez dutenak.
- (4) **Erabilera jasangarria:** gune horretako kudeaketa-helburuetako bat da lurraldean erabilerak mantentzea, baliabideak kontserbatzeko funtsezko elementu gisa.
- (5) Prebentzio-kudeaketan oinarritutako guneak IV. kategoriakoak dira beti. Natura 2000 Sareko guneak kudeatzeko tresna askotan ez dago beste kudeaketa-helbururik ezarrita, eta ez dago erabilera-murrizketarik. Natura Sarearen azpian den kontzeptuaren arabera, jarduera guztiak baimenduta egon daitezke, betiere izendapenaren objektuei (habitatei edo espezieei) kalte **esanguratsurik** eragiten ez badiete.
- (6) Gunea kudeatzeko helburuen artean, erauzketa-jarduerak mantentzea dago (abeltzaintza eta nekazaritza, batez ere), habitat edo espezie jakin bat mantentzeko kudeaketa-tresna gisa (adibidez: nekazaritza intentsiboa mantentzea zereal-estepetan, basoiloa kontserbatzeko).
- (7) Gunea kudeatzeko helburuen artean, erauzketa-jarduerak mantentzea dago (abeltzaintza, nekazaritza), kontserbaziorako paisaiaren elementu egituratzaile gisa. Beraz, V. kategorian, jendearen eta naturaren arteko elkarreaginak eremu bakarra du, eta elkarrekintza hori zaindu egin behar da. Horren harira, arrantza-jarduera eta/edo jarduera turistiko jasangarriak dituzten tokiko komunitateetako itsas eremuak ere sar daitezke, betiere itsas paisaiaren identitate-elementu badira.
- (8) **Sistema nagusiki naturalak:** V. kategoriarekiko aldea honako hau da: eremu horiek izaera naturala dute artifizialarekin kontrajarrita (esku-hartzeak izan dituzten ekosistemak eta giza jardueratik eratorritakoak, paisaia bereizgarriak sortzen dituztenak, V. kategoriakoak). Erauzketa-jarduerak tradizionalak eta jasangarriak dira (maila baxuko erabilera jasangarri ez-industrialak), eta, gainera, eremua kudeatzeko helburu dira jarduera horiek (helburu nagusiak); hortaz, sustatutako jarduerak dira. Jarduerok baliabideen kontserbazioarekin eta eremuaren naturaltasunarekin bateragarriak dira, baina ez dute eremuko paisaia osatzen.

7 Biotopo babestuak babesteko tipologia berria proposatzea

Biotopo babestu bakoitzari buruzko dokumentazioa aztertu eta gune babestuen NKNB kategoria proposatu ondoren, biotopo babestuaren kategoria 9/2021 Legearen tipologietara egokitu da. Apartatu honen emaitza gune babestuetarako babes-tipologia berriaren proposamena izango da. 9/2021 Legearen 37. artikulua gune babestuen tipologia definitzen du, eta honela sailkatzen ditu: a) naturagune babestuak, b) Natura 2000 Sareko naturagune babestuak eta c) gune babestuak nazioarteko tresnak aplikatzearen ondorioz. Naturagune babestuek hauek hartzen dituzte barnean: parke naturalak, natura-erreserbak, natura-monumentuak eta paisaia natural babestuak.

Jarraian, 9/2021 Legean jasotako babes-figura horietako bakoitza deskribatzen da, lortu nahi diren kudeaketa-helburuak eta baimendutako erabilerak kontuan hartuta.



A) NATURAGUNE BABESTUAK

NATURA-PARKEA (9/2021 Legearen 48. artikulua)	
Definizioa (48.1)	Eremu zabal samarrak dira, gizakiaren ustiapen edo okupazioarengatik gutxi transformatuak, ekosistemen edo habitaten adierazgarritasunagatik, bertako flora, fauna edo ondare geologiko bereziarengatik (bertako formazio geomorfologikoak edo paisaien edertasuna barne) botere publikoen aldetik lehentasunezko arreta merezi dutenak, baliabide naturalak era ordenatuan aprobetxatzea eta erabilera publikoa bateragarria izan daitezzen haien balio ekologiko, estetiko, hezigarri eta zientifikoekin.
Aprobetxamenduak (48.2 eta 48.3)	Bateragarri egingo da haien natura-ondarearen kontserbazioa bertako baliabideen aprobetxamendu ordenatuarekin eta biztanleen jarduerarekin.
Erabilera publikoa (48.4)	Bisitariak sartu ahal izango dira, baina muga zehatzekin, natura-ondarea eta bertako lursailtako titularren eskubideak babesten direla bermatzeko.
Kudeaketa-tresna (48.5)	Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana

NATURA-ERRESERBA (9/2021 Legearen 49. artikulua)	
Definizioa (49.1)	Neurrizko hedapena edo murriztua duten naturaguneak dira. Horrelako naturaguneak sortzeko helburua izango da ekosistema, komunitate edo elementu biologikoak babestea, baita interes geologikoko tokiak ere, zeinek horien urritasun, hauskortasun, garrantzi edo berezitasunarengatik balioespen berezia merezi baitute, eta baso heldu edo zaharrak edo baso-erreserbak edo baliokideak jaso ahal izango dira.
Aprobetxamenduak (49.2)	Mugatuta egongo da baliabideak ustiatzea, salbu eta ustiapen hori kontserbatu nahi diren balioekin bateragarria denean.
Erabilera publikoa	Ez da aurreikusten, baina ez da berariaz debekatzen.
Kudeaketa-tresna (49.3)	Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana edo deklarazio-dekretua

NATURA-MONUMENTUA (9/2021 Legearen 50. artikulua)	
Definizioa (50.1 eta 50.2)	Babes bereziaren xede izatea merezi duten berezitasun, urritasun edo edertasun nabariko formazioek eratutako naturako gune edo elementuak. Bereziki, aparteko zuhaitzak eta basoak; mikroerreserbak, interes geologikoko tokiak (IGT), beren ezaugarriek horrela aholkatzen badute, gearen beste aparteko elementu batzuk.
Aprobetxamenduak (50.3)	Baliabideak ustiatzea mugatuta egongo da, salbu eta erabat koherentea bada babestu nahi diren balioen kontserbazioarekin, bere deklarazio- edo kudeaketa-arauetan ezarritakoaren arabera edo gutxieneko inpaktua duten jarduera ekonomiko bateragarriak izateagatik eta ongizate sozioekonomikoari edo populazioaren ongizateari ekarpena egiteagatik.
Erabilera publikoa	Ez da aurreikusten, baina ez da berariaz debekatzen.
Kudeaketa-tresna (50.4)	Deklarazio-dekretua

PAISAIA NATURAL BABESTUA (9/2021 Legearen 51. artikulua)	
Definizioa (51.1 eta 51.2)	Balio natural, estetiko eta kulturalengatik babes berezia merezi duten lurralde-eremuak dira. Hauek dira helburuak: a) Bereizten dituzten aparteko balio estetiko, biologiko edo geologikoak kontserbatzea. b) Naturaren eta kulturaren arteko interakzio harmoniatsua gordetzea toki zehatz batean, leku horretan bizi diren pertsonekin.
Aprobetxamenduak (51.3)	Bertako balioak eta natura-ondarea gordetzen laguntzen duten lurralde-praktikak eta -erabilerak mantentzen ahaleginduko da. Saihestu egingo dira horiek artifizialtzea edo deklarazioaren xede diren balioak eta interakzioak narriatzea dakarten praktika eta erabilerak.
Erabilera publikoa	Ez da aurreikusten, baina ez da berariaz debekutzen.
Kudeaketa-tresna (51.4)	Deklarazio-dekretua

B) NATURA 2000 SAREKO NATURAGUNE BABESTUAK

NATURA 2000 SAREKO NATURAGUNE BABESTUAK (9/2021 Legeko 57.-62. artikulua)	
Definizioa (57.)	Habitategi buruzko zuzentaraua (Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentaraua) eta hegaztiei buruzko zuzentaraua (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 30eko 2009/147/EE ZUZENTARAUA) aplikatzearen ondorioz izendatutako guneak dira. Honako hauek hartzen ditu barne: <ul style="list-style-type: none"> • BGL: Batasuneko Garrantzizko Lekuak • KBE: Kontserbazio Bereziko Eremuak • HBBE: Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak
Aprobetxamenduak (58.3)	Habitat naturalen, espezieen habitaten eta flora eta fauna basatien narriadurarik ez dakarten guztiak, horiek izan baitira lekua izendatzeko eta lekua kontserbatzeko arrazoiak, bai eta horiek egoera onean kontserbatzea lortzeko eta mantentzeko behar direnak ere.
Erabilera publikoa	Ez dira ezartzen, aprobetxamenduen kasuan bezala, baldin eta espezieen eta habitaten narriadurarik ez badakarte.
Kudeaketa-tresna (59)	Kontserbatzeko jarraibideak

C) NAZIOARTEKO TRESNEN ARABERA BABESTUTAKO GUNEA

Gune-tipologia honetan figura hauek sartzen dira: biosfera erreserbak (Unescoren Gizakia eta Biosfera MAB Programa), geoparkeak (Unescoren Munduko Geoparkeen Programa) eta nazioarteko garrantzizko hezeguneak (Ramsarko Hitzarmena), bai eta Munduko Kultura eta Natura Ondarea Babesteko Hitzarmenaren arabera izendatu daitezkeen beste figura batzuk, erreserba biogenetikoak eta nazioarteko arauak babestutako bestelako naturaguneak.

7.1 Babes-figura berri bat esleitzeko metodologia aplikatzea

9/2021 Legean ezarritako naturagune babestuen kategorien definizioa kontuan hartuta, lau babes-figura hauek hartu dira aintzakotzat: parke naturala, natura-erreserba, natura-monumentua eta paisaia natural babestua.

Jarraian, gune horiek laburbiltzen dira kontserbazio, aprobetxamendu eta erabilera publikoko helburuei dagokienez.

TIPOLOGIA	IZAERA/HELBURUAK	APROBETXAMENDUAK	ERABILERA PUBLIKOA (bisitariak)
Parke naturala	Eremu zabal samarrak eta gutxi transformatuak	Bai (kontserbazioarekin bateragarriak)	Bai
Natura-erreserba	Neurrizko hedapena edo murriztua Ekosistema, komunitate edo interes geologikoko tokiak babestea	Mugatua, salbu eta ustiapen hori bateragarria denean	Ez da debekatzen
Natura-monumentua	Zuhaitzak, basoak, interes geologikoko tokiak, mikroerreserbak eta beste elementu batzuk	Mugatua, salbu eta erabat koherentea bada balio edo inpaktu txikiko jarduera ekonomikoen kontserbazioarekin	Ez da debekatzen
Paisaia natural babestua	Kontserbatzea eta naturaren eta kulturaren arteko interakzio harmoniatsua gordetzea	Bai (kontserbatzen laguntzen dutenak mantentzea)	Ez da debekatzen

Babes-figura berriak biotopo babestuei esleitzeko, horietako bakoitzak aurreko taulan adierazitako alderdiak betetzen dituen aztertu da. Aurreko apartatuetan (6. apartatua) kontserbazio, kudeaketa eta erabilerako helburuak aztertu ondoren, biotopo babestu bakoitza azter daiteke, 9/2021 Legean naturagune babestuen tipologiei esleitutako ezaugarrien arabera.

Oro har, biotopo babestu osoa hartzen da kontuan, ezarritako zonakatzea alde batera utzita, eta, betiere, eremuaren % 75ek baino gehiagok antzeko kudeaketa-helburuak baditu eta izendapen-helburuekin bat badatoz.



8 Biotopo babestuen azterketa: emaitzak

Zortzi biotopo babestuetako bakoitzerako eskuragarri dagoen informazio guztia bildu eta horietako bakoitzera landa-bisita egin ondoren, lortutako emaitzak aurkeztuko dira jarraian.


Emaitzak biotopo babestu bakoitzerako prestatutako hainbat fitxatan jaso dira. Fitxa horietan, informazioa biltzeko eta aztertzeko prozesua laburbildu da, NKNBren kudeaketa-kategoria bat eta babes-figura berria esleitu da, Euskadiko 9/2021 Legearen naturagune babestuen tipologien arabera.

8.1 Añanako diapiroko biotopo babestua

KOKAPENA



BIOTOPO PROTEGIDO
DIAPIRO DE AÑANA



AZALERA: 1.628,81 ha



Caicedo, Yuso eta Arreo aintzira



Gesaltza Añana



8.1.1 Informazioaren azterketa

AÑANAKO DIAPIROKO BIOTOPO BABESTUA	
Informazio-iturriak biltzea eta azterzea.	
Deklarazioa eta kudeaketa-tresna	
<ul style="list-style-type: none"> • 85/2016 DEKRETUA, maiatzaren 31koa (gunearen deklarazioa eta mugaketa) • 37/2017 EBAZPENA, martxoaren 1ekoa (jarraibideak eta kudeaketa-neurriak) <p>Bi dokumentu horiek KBEari eta biotopo babestuari buruzkoak dira.</p>	
Gunea izendatzeko irizpideak identifikatzea	
<p>Biotopo babestu deklaratu da, eta helburua da diapiroko erako formazio geologikoa osatzen duen paisaia babestea, baita barnean hartzen dituen sistema hidrogeologikoa eta flora zein fauna basatien habitat eta espeziak ere. Azkeneko horiek guztiak albitz-belardi eta sastrakazko baso eta mosaikoekin lotuta daude, eta bereziki eragiten dute hezegune eta giro gaziakin lotutako biodibertsitate-elementuetan.</p> <p>Biotopo babestuaren azalera 1.628,81 ha-koa da, eta horietatik 148,31 ha biotopoaren barruan dagoen KBEari dagozkio. Kudeaketa-tresna komuna da bi guneentzat, alegia, biotoparentzat eta KBEarentzat, eta helburu komunak edo gune bakoitzari dagozkionak ezartzen ditu.</p>	
Gunearen helburuak (kudeaketa-helburuak)	
<ul style="list-style-type: none"> • Caicedo Yuso eta Arreoko aintzirako ur gezako habitaten potentzial ekologikoa berreskuratzea, zohikaztegi, lezkadi eta ur-bazterreko landarediaren orlak barne, hezegunearen egoera ekologiko ona lortzeko, intereseko hegazti-espezieentzako habitataren gaitasuna hobetuz (KBEa bakarrik). • Aintziraren iturburuan dauden habitat halofiloen kontserbazio-egoera ona lortzea (KBEa bakarrik). • Gatz Haraneko gatz-gunearen arkitektura- eta kultura-ondarea zaharberritzea eta haren erabilera publikoa bateragarri egitea habitat eta espezie halofiloen kontserbazioarekin (biotopoa bakarrik). • Belardien eta sastrakadien habitaten kontserbazio-egoera hobetzea, baita haien mende dauden fauna-espezieena ere. • Batasunaren intereseko habitatak diren <i>Quercus</i> generoko zuhaitzen basoen kontserbazio-egoera hobetzea eta intereseko baso-hegaztien espezieentzako gaitasuna hobetzea. • Zehaztasunez jakitea zein diren KBEaren eta biotopo babestuaren kontserbazio-egoera eta erreferentziako kontserbazio-egoera ona, eta bestalde, kontserbazio-egoera hori galtzea edo narriatzea eragin dezaketen kausak zehaztea, epe luzean egoera horri eustea bermatuko duten neurriak berriz diseinatzeko eta egokitzeke. • KBEan eta biotopo babestuan eragina duten erabakiak hartzeko prozesuetan, gizartearen partaidetza sustatzea, bai eta herritarrak kontserbazioan inplika daitezen bultzatzea ere. • Organo publiko eskudun guztien erakundearteko koordinazioa hobetzea eta ingurumenari eta sektoreari buruzko araudi guztia egokitzea, koherentea izan dadin dokumentu honen xedearekin eta helburuekin, bai eta horiek lortzeko ezartzen dituen jarduketa, jarraibide eta arauekin ere. 	
<p>Erabilera bateraezinak (debekatuak): 85/2016 Dekretuaren 7.1, 7.2, 7.3 (KBEa bakarrik), 7.4 (KBEa bakarrik) 7.5 (biotopoa bakarrik), 7.6 eta 7.7 apartatuak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oro har, debekatuta dago aprobetxamendu berriak egitea nekazaritzarako, erauzketarako eta lurpeko uren aprobetxamendurako, bai eta belartzen eta sastraken mosaikoko eremuetan herbizidak eta fitosanitarioak erabiltzea ere, hala landaredi hezean, nola Gatz Haranean. - Ehiza-barruti intentsiboak debekatuta daude - Debekatuta dago Caicedo Yuso eta Arreoko aintziran arrantza egitea, bai eta aintzira-hodia, haren urertzak eta errekek edo lurrazaleko edo lurpeko uren dinamika naturala aldatzen duten azpiegitura guztietan aritzea edo halako jarduketak egitea ere. - Debekatuta dago bidezidor berriak irekitzea, ibilgailuak bertara sartzeko eta horiekin ibiltzea, bai eta erauzketa-jarduerak egitea ere aintziraren iturburuko landaredi halofiloaren zonan. 	<p>Baimendutako erabilera: 85/2016 Dekretuaren 7.2, 7.5, 7.6 eta 7.7 apartatuak, biotopo babestuarentzat</p> <p>Ez dira ezartzen. Kudeaketa-planeari jaso direnak aipatu dira.</p> <p><u>Erabilera publikoa:</u> gizartearen partaidetza sustatzeko helburuaren barruan sartzen da Añanako diapiroko eta haren inguruko balio naturalistikoak, geologikoak, kulturalak eta arkeologikoak zabaltzeko ibilbideak aztertea, diseinatzeko eta, hala badagokio, egitea, eta lehentasuna ematea balio horiek babesteari (83. jarduketa), eta turismo-instalazioetarako beste batzuk egitea (17. jarduketa). Gatz Haranean</p>

<ul style="list-style-type: none"> - Habitaten kontserbazioarekin bateraezinak diren beste hainbat jarduera arautu eta debekatu dira (hala nola sua erabiltzea edo sastrakak kentzea), baita intereseko espezieei (adibidez, habiak egiteko garaian eta umealdian dauden baso-harrapariei) eragin diezaieketen jarduerak ere. - Erauzketa-jarduerak debekatuta daude, gatzarekin zerikusia dutenak izan ezik, Gatz Haranean. - Debekatuta dago Caicedo Yuso eta Arreoko aintzirako ur-laminako ekosistemaren erabilera ez-zientifikoa edo kontserbazio-erabilera ez dena. 	<p>interpretazio-zentro bat eta ibilbide bat daude.</p> <p><u>Jarduera ekonomikoak:</u> barruan sartzen dira erlezaintza eta nekazaritza ekologikoa sustatzea (8. jarduketa) eta nekazaritza eta ingurumeneko neurriak (9. jarduketa). Gaur egun, nekazaritza-jarduera dago, eta gune irekiak mantentzeko artzaintza estentsiboko sistema bat diseinatu nahi da, Batasunaren intereseko habitata mantendu eta lehengoratzeko aldera (43. jarduketa).</p> <p>Gatzaren erauzketa tradizionala Gatz Haranean; habitat bereizgarriak osatzen ditu horrek.</p> <p>Ehiza daiteke.</p>
--	---

Gunearen zonakatea identifikatzea

Babes-eremu periferikoa

Guneak ez du ezarritako zonakatzerik, baina 19,65 ha-ko babes-eremu periferiko bat mugatzen da, eremuko hiriguneei eta inguru hurbilari dagokiona.

Gainera, Caicedo Yuso eta Arreoko aintzira KBEa dago barruan, eta helburu espezifikoak eta erabilera debekatuak ditu.


KBEak, lehen esan dugun bezala, erabilera espezifikoak kudeatzeko eta arautzeko helburuak ditu, Batasunaren intereseko elementuen kontserbazioa ziurtatzeari eta kontserbazio-egoera ona lortzeari begira; elementu horiengatik izendatu zen. Horregatik, helburuak, kudeaketa eta erabileren arauketa helburu orokor horretara bideratuko dira.

Beste babes-figura batzuk


- Caicedo Yuso eta Arreoko aintzira KBEa (ES2110007), biotopo babestuaren barruan kokatua, RAMSAR hezegunea eta nazioarteko garrantzizko hezegunea ere badena, eta natura intereseko eremua (28/1997 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak), LAGak eguneratzean natura-intereseko gune multifuntzional izendatutakoak (128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez behin betiko onesten baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak). Ebroko Demarkazioko Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroko parte da (129/2014 Errege Dekretua).
- Barruan, 4 interes geologikoko toki daude: Caicedo-Yusoko aintzira, Añanako diapiroa, Gesaltza Añana eta Pauleko igeltsu-meatzeak.
- Caicedo Yuso eta Arreoko aintzirak eta Gesaltza Añana II. taldeko hezeguneak dira, Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planaren arabera (160/2004 DEKRETUA, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duena, eta ondorengo aldaketak: AGINDUA, 2011ko maiatzaren 3koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Inbentarioa aldatzen baita eta 231/2012 DEKRETUA, urriaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzeko Dekretua aldatzeko dena). Kontuan izan behar da eremua biotopo babestu izendatu aurretik sartu zela II. taldean. Hezeguneen LAParen 5. artikulua arabera, gaur egun I. taldeari dagokio. Talde horrek gune babestu izendatutako hezeguneak biltzen ditu, eta «gune horien antolamendua ez da lurraldearen arloko plan honen xedea. Gune horietako bakoitzaren berariazko araudiaren arabera egingo da».
- Gatz Harana kultura-ondasun gisa sailkatzen da, Añanako Gatz Haraneko kultura-paisaia izeneko monumentu-multzo kategoriarekin (185/2013 Dekretua, martxoaren 26koa)

8.1.2 NKNB kategoriaren proposamena

Añanako diapiroko biotopo babestuaren eremuak barnean biotopoaren kontserbazio- eta kudeaketa-helburu bereziak dituen KBE bat duenez, NKNB kategoriaren esleipena berezia da biotopo babestu osorako eta KBERako.



KBerako NKNB kategoriak esleitzeko zuhaitzaren ibilbidea



KBeari esleitutako kategoria egiaztatzeko zuhaitza



Balorazioa

Añanako diapiroko biotopo babestuak ez du ezarritako zonakaterik, nahiz eta haren barruan Caicedo Yuso eta Arreoko aintzira KBEa (ES2110007) dagoen. Horri dagokionez, kudeaketa-tresnan helburu eta neurri espezifikoak ezartzen dira, Batasunaren intereseko fauna eta florako basa-espezieen habitat naturalak eta habitatak kontserbazio-egoera onean mantentzen edo lehengoratzten direla bermatzeko, bai eta haien banaketa-eremuan hegazti-espezieen biziraupena eta ugalketa ziurtatzeko ere, bereziki hegaztiei buruzko zuzentarauaren I. eranskinean jasotakoak eta migrazio-espezieak. KBEan ere ez da zonakatzeko espezifikorik ezartzen.

Biotopoaren deklarazioaren arabera, gunea osorik kontserbatzea da helburua, eta paisaiaren babesa du ardatz; beraz, hura eratzen duen formazio geologiko diapirokoa eta bertako sistema hidrogeologikoa. Hots, gunean hainbat habitat badaude ere, helburu nagusia aparteko elementu geologiko bat eta egungo paisaia eratzen duten aprobetxamendu tradizionalak oro har babestea da.

Aprobetxamenduaren erregulazioari dagokionez, kudeaketa-tresnak eta gunea deklaratzeko arauak dauden erabilerei buruzko erregulazioak jasotzen dituzte, batez ere nekazaritzakoak, gunearen balioen kontserbazioarekin bateragarriak izan daitezten, bai eta abeltzaintza-jarduera sustatzea ere, habitat batzuk mantentzeko edo lehengoratzeko. Zehazki, sastrakek eta albitz-belarrek abeltzaintza-jarduera behar dute mantendu daitezten.

Bestalde, Gatz Haranean gatzaren ustiapena jarduera tradizionala da. Paisaia bereizgarria eratu du eta kontserbazio-balio handiko habitatak eta espezieak dituzten egitura artifizialak sortu ditu, gunearen balio nagusietako bat osatzen dutenak.

Azkenik, erabilera publikoa kudeatzeko helburuak eta neurriak ere planteatzen dira. Gunea interpretatzeko zentro bat dago, eta, Caicedo Yuso eta Arreoko aintzirarako sarbidea mugatzen bada ere sentikortasun berezia duelako, erabilera publikoa sustatzen da beste zona batzuetan, hala nola Gatz Haranean.

Alderdi horiek kontuan hartuta, esleitutako NKNB kategoria paisaia babestuaren kategoria da, alegia, V. kategoria. Izan ere, helburu nagusia paisaia babestea da, hots, formazio geologiko diapirokoa eta paisaia eratu duten aprobetxamendu tradizionalak. Hala, oro har, guneko habitat bereizgarri asko eraten eta mantentzen dituzten erabilerei eusten zaie, nahiz eta dagozkien arauekin, eta gunea ezagutzea sustatzen da.

Bestalde, KBE izendatutako eremua Batasunaren intereseko habitatak eta espezieak lehengoratzera eta kontserbatzera bideratuta dago. Alde horretatik, kudeaketa-planean habitat degradatuak lehengoratzeko zuzeneko neurriak ezartzen dira (LIFE+ Natura programaren 2011ko Tremedal proiektua). Gainera, KBEari dagokion eremua aintzira natural bat da, eta ez da giza jardueren eta naturaren arteko elkarreaginaren ondorioz sortu. **Hori dela eta, esleitutako kategoria ez da IV. kategoria (Habitatak edo espezieak kudeatzeko eremuak), hau da, ez da biotopoaren gainerako eremuei esleitu zaiena.**

Dena den, nahiz eta KBEaren kontserbazio-helburuak habitaten eta espezieen babesean oinarritzen diren, oro har, diapiroaren formazio geologikoari lotutako elementua da. Horrez gain, 1.628,81 ha-ko azalera du biotopoak, eta Caicedo Yuso eta Arreoko aintzira KBEak (hau da, eremuaren % 9,10) horietako 148,31 ha hartzen ditu, alegia, eremu babestuaren % 75 baino gehiago biotopoarentzat ezarritako helburuen arabera kudeatzen da.

Beraz, nahiz eta KBEak argi eta garbi bereizitako kudeaketa-helburuak dituen eta NKNBren kudeaketako IV. kategoriarik esleitu dakioken, biotopo osoari (KBEa barne) paisaia babestuaren kudeaketa-kategoria esleitu zaio, hots, V. kategoria.

8.1.3 Naturagune babestuaren tipologia berria proposatzea

Añanako diapiroko biotopo babestuaren kasuan, KBE izendatutako zona bat dago. Kasu honetan, KBEaren figura mantentzen da izendatutako zonarako, eta biotopo babestu osorako beste babes-figura bat aplikatzea aztertzen da.

Ondorengo tauletan, Añanako diapiroko biotopo babestuaren ezaugarriak eta 9/2021 Legean ezarritako tipologia berriekin duen lotura aztertzen dira.

1. taula. Añanako diapiroa eta naturagune babestuaren tipologia berriak aztertzea, kontserbazio-helburuei dagokienez

TIPOLOGIA	IZAERA/HELBURUAK	AÑANAKO DIAPIROA
Parke naturala	Eremu zabal samarrak eta gutxi transformatuak	EZ
Natura-erreserba	Neurrizko hedapena edo murriztua Ekosistema, komunitate edo interes geologikoko tokiak babestea	BAI
Natura-monumentua	Zuhaitzak, basoak, interes geologikoko tokiak, mikroerreserbak eta beste elementu batzuk	BAI
Paisaia natural babestua	Kontserbatzea eta naturaren eta kulturaren arteko interakzio harmoniatsua gordetzea	BAI

2. taula. Añanako diapiroa eta naturagune babestuaren tipologia berriak aztertzea, aprobetxamenduei dagokienez

TIPOLOGIA	APROBETXAMENDUAK	AÑANAKO DIAPIROA
Parke naturala	Bai (kontserbazioarekin bateragarriak)	BAI
Natura-erreserba	Mugatua, salbu eta ustiapen hori bateragarria denean	EZ
Natura-monumentua	Mugatua, salbu eta erabat koherentea bada balio edo inpaktu txikiko jarduera ekonomikoen kontserbazioarekin	EZ
Paisaia natural babestua	Bai (kontserbatzen laguntzen dutenak mantentzea)	BAI

3. taula. Añanako diapiroa eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, erabilera publikoari dagokionez

TIPOLOGIA	ERABILERA PUBLIKOA (bisitariak)	AÑANAKO DIAPIROA
Parke naturala	Bai	BAI
Natura-erreserba	Ez da debekatzen	BAI
Natura-monumentua	Ez da debekatzen	BAI
Paisaia natural babestua	Ez da debekatzen	BAI


4. taula. Añanako diapiroa eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, erabilera publikoari dagokionez

TIPOLOGIA	AÑANAKO DIAPIROA		
	IZAERA/HELBURUAK	APROBETXAMENDUAK	ERABILERA PUBLIKOA (bisitariak)
Parke naturala	EZ	BAI	BAI
Natura-erreserba	BAI	EZ	BAI
Natura-monumentua	BAI	EZ	BAI
Paisaia natural babestua	BAI	BAI	BAI

Egindako azterketa kontuan hartuta, 9/2021 Legearen naturagune babestuen tipologia berria, Añanako diapiroko biotopo babestuari egokitzen zaiona, PAISAIA NATURAL BABESTUA da. Honela definitzen da: «Balio natural, estetiko eta kulturalengatik babes berezia merezi duten lurralde-eremuak dira, eta helburu hauek dituzte: bereizten dituzten aparteko balio estetiko, biologiko edo geologikoak kontserbatzea, eta naturaren eta kulturaren arteko interakzio harmoniatsua gordetzea toki zehatz batean, leku horretan bizi diren pertsonekin».

8.2 Gaztelugatxe biotopo babestua

KOKAPENA



BIOTOPO PROTEGIDO
GAZTELUGATXE



0 0,3 0,6Km

AZALERA: 157,8 ha




8.2.1 Informazioaren azterketa

GAZTELUGATXE ALDEKO BIOTOPO BABESTUA	
Informazio-iturriak biltzea eta azterzea.	
Deklarazioa eta kudeaketa-tresna	
<ul style="list-style-type: none"> • 229/1998 DEKRETUA, irailaren 15ekoa, Gaztelugatxe aldea babespeko biotipotzat deklaritzen duena. • Bizkaiko Foru Aldundiaren 2171/2009 FORU AGINDUA, maiatzaren 7koa, Gaztelugatxe Aldeko Babestutako Biotopoa itsaski-bilketan aritzeko debekua mantentzen duena. • 358/2013 DEKRETUA, ekainaren 4koa. Honen bidez, Kontserbazio Bereziko Eredu (KBE) izendatzen dira Urdaibai eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuan dauden 4 Batasunaren Garrantziko Leku, eta onartu egiten dira KBE horien eta Urdaibaiko itsasadarreko HBBEaren kontserbazio-neurriak. 	
Gunea izendatzeko irizpideak identifikatzea	
Biotopo babestu izendatu dute, Gaztelugatxe aldeko eta inguruko itsasoko eta lehorreko flora eta fauna kontserbatzeko eta babesteko.	
Gunearen helburuak (kudeaketa-helburuak)	
<ul style="list-style-type: none"> • Gaztelugatxe aldeko itsasoko eta lehorreko flora eta fauna babestea. • KBEaren kontserbazio-helburuen oinarria da giltzarritzat jotzen diren elementuak mantentzea edo horien aldeko egoera lortzea: Itsaslabarretako 1230 BIH, kostaldeko txilardien 4040 BIH, <i>Armeria euscadiensis</i>, <i>Podarcis muralis</i>, <i>Phalacrocorax aristotelis</i>, <i>Hydrobates pelagicus</i> eta hegazti migratzaileak (batez ere <i>Puffinus mauretanicus</i> eta <i>Morus bassanus</i>). 	
Erabilera bateraezinak (debekatuak):	Baimendutako erabilerak:
<ul style="list-style-type: none"> - Debekatuta dago obra-hondakinak, zaborrak edo produktu kutsatzaile solidoak botatzea eta likidoak isurtzea. - Debekatuta dago kanpatzea. - Debekatuta daude itsasoko eta lehorreko motorrezko kirol-probak eta -jarduerak, eta, oro har, eremuaren lasaitasunari eragiten dioten jardura guztiak. - Sua nekazaritza-erabilera tradizioaletarako, lehendik dauden eraikuntzen barruko etxe-erabileretarako eta kudeaketa-organoak aldeztuz aurretik baimendutako helburuetarako baino ez da baimenduko. - Itsas zerbitzuei eta biotopoaren kudeaketari lotutako eraikuntzak baino ez dira onartzen. - Debekatuta dago bertakoa ez den basa-fauna sartzea. - Kudeaketa-organoaren baimena beharko da flora sartzeko eta berriz sartzeko eta baso-landaketak egiteko. - Debekatuta dago baliabideak erabiltzea (salbu eta kanaberarekin arrantzatzea eta itsaskiak biltzea eta itsasoak ekarritako algak ateratzea), helburu zientifikoetarako izan ezik. - Ainguratzea debekatuta dago. - Debekatuta dago ehiza-jarduera. - Debekatuta dago biriken eta botilen bidezko urpekaritzan aritzea kudeaketa-organoak behaketa eta argazkiak egiteko baimena eman ezean. 	<p>Ez dira ezartzen. Kudeaketa-planean jaso direnak aipatu dira.</p> <p>Kanaberarekin <u>arrantzatzea</u> lehorretik <u>Itsaskiak biltzea</u>: luzamenduen deklarazioaren bidez arautua</p> <p>Itsasoak ekarritako <u>algak biltzea</u>.</p> <p><u>Itsasontziak</u>: bainurako eta beste jardura batzuetarako ontziak sar daitezke.</p> <p>Kudeaketa-organoak baimendutako <u>ikerketarako eta hezkuntzarako jarduerak</u>.</p> <p><u>Nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilera tradizionalak</u>.</p> <p><u>Erabilera publikoa</u>: batez ere Gaztelugatxeko Donieneko ermitan oinarritzen da.</p>
Gunearen zonakatzea identifikatzea	
Babes-eremu periferikoa	
Guneak ez du ezarritako zonakaterik, baina babes-eremu periferiko bat mugatzen da lehorreko zonan. Biotopo babestuaren azalera 157,8 ha-koa da; horietatik 130,9 ha itsas eremuari dagozkio eta 26,9 ha lehorrekoari.	

Beste babes-figura batzuk

- Urdaibaiko HBBEa eta Gaztelugatxeko Donieneko KBEa. Biotopo babestua barnean sartzen da guztiz; KBEaren eta biotopoaren mugak bat datoz, eta Urdaibaiko itsasadarreko HBBEaren barruan dago. Mundakako itsasadarra-Ogoño lurmuturra itsas guneko itsas HBBEarekin egiten du muga.
- Gaztelugatxeko Doniene interes geologikoko tokia (88. IGT).

8.2.2 NKNB kategoriaren proposamena



Balorazioa

Biotopo babestua Natura 2000 Sareko bi gunerekin lotuta dago: Gaztelugatxeko Donieneko KBEarekin eta Urdaibaiko HBBEarekin. KBEaren eta biotopoaren mugak berberak dira, eta bietarako kudeaketa-tresna bakarra dago. Tresna horrek bi eremu horiek hartzen ditu barne, eta ez da bereizten batera edo bestera bideratutako kudeaketa-neurririk. Hori dela eta, NKNBren kategorien azterketa gune osoari esleitzen zaio. HBBEak askoz hedadura zabalagoa du, eta ekialdetik eta barnealdera Urdaibairen estuarioan barrena hedatzen da. Gainera, biotopoak itsas HBBE zabal batekin egiten du muga, hau da, Mundakako itsasadarra-Ogoño lurmuturra itsas gunearekin.

Gaztelugatxe aldeko biotopo babestuaren kudeaketa-tresnak KBEaren kontserbazio-helburuetan zentratzen dira, eta, ondorioz, haien oinarria da elementu giltzarriak mantentzea edo horien aldeko egoera lortzea: Itsaslabarretako 1230 BIH, kostaldeko txilardien 4040 BIH, *Armeria euscadiensis*, *Podarcis muralis*, *Phalacrocorax aristotelis*, *Hydrobates pelagicus* eta hegazti migratzaileak (batez ere *Puffinus mauretanicus* eta *Morus bassanus*).

Biotopo babestuaren izendapen-dokumentuan adierazten denez, guneko flora eta fauna kontserbatzea da helburua, eta horregatik jo daiteke hori gunearen helburu nagusizat; hala ere, elementu geomorfologiko bereizgarria izateagatik nabarmentzen da zona hori (itsaslabarrak eta uhartetxoak), garrantzi kultural handiko elementu bati lotua (ermita).

Bisitari ugari erakartzen ditu zona horrek, batez ere Gaztelugatxeko Donieneko ermitagatik, baina kudeaketa-tresnak ez du lehentasunezko helburu hori aurreikusten.

Zona horretako erabilerak eta jarduerak mugatuta daude, eta abeltzaintza eta nekazaritza tradizionala, kanaberarekin lehorretik arrantzatzea eta itsasoak ekarritako algak biltzea baino ez dira baimenduko. Itsaskiak biltzea araututa dago eta, batzuetan, luzamenduak izaten ditu.

Alderdi horiek kontuan hartuta, esleitutako NKNB kategoria natura-monumentua da (III. kategoria); izan ere, florako eta faunako elementu bereziak babesteko elementu geomorfologiko eta kultural bereizgarria da, eta erabilerak tradizionalak mantentzen ditu mugekin, bai eta erabilerak publikoak ere, nahiz eta azken hori ez den gunearen helburu bat.

8.2.3 Naturagune babestuaren tipologia berria proposatzea

Gaztelugatxe aldeko biotopo babestua KBE izendatutako eremu baten barruan dago, eta bat dator haren mugekin. Biotopoari naturagune babestuaren beste tipologia bat esleitzea aztertu da; nolahi ere, KBEaren esleipenari eutsiko zaio.

Ondorengo tauletan, Gaztelugatxe aldeko biotopo babestuaren ezaugarriak eta 9/2021 Legean ezarritako tipologia berriekin duen lotura aztertzen dira. EZ ipini da, baldin eta biotopoaren ezaugarriak, aprobeixamenduak eta erabilerak ez badatoz bat ezarritako figurarekin; oster, BAI, bateragarriak badira.

5. taula. Gaztelugatxe alde eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, kontserbazio-helburuei dagokienez

TIPOLOGIA	IZAERA/HELBURUAK	GAZTELUGATXE ALDEA
Parke naturala	Eremu zabal samarrak eta gutxi transformatuak	EZ
Natura-erreserba	Neurrizko hedapena edo murriztua Ekosistema, komunitate edo interes geologikoko tokiak babestea	BAI
Natura-monumentua	Zuhaitzak, basoak, interes geologikoko tokiak, mikroerreserbak eta beste elementu batzuk	BAI
Paisaia natural babestua	Kontserbatzea eta naturaren eta kulturaren arteko interakzio harmoniatsua gordetzea	BAI

6. taula. Gaztelugatxe alde eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, aprobetxamenduei dagokienez

TIPOLOGIA	APROBETXAMENDUAK	GAZTELUGATXE ALDEA
Parke naturala	Bai (kontserbazioarekin bateragarriak)	BAI
Natura-erreserba	Mugatua, salbu eta ustiapen hori bateragarria denean	BAI
Natura-monumentua	Mugatua, salbu eta erabat koherentea bada balio edo inpaktu txikiko jarduera ekonomikoekin kontserbazioarekin	BAI
Paisaia natural babestua	Bai (kontserbatzen laguntzen dutenak mantentzea)	EZ

7. taula. Gaztelugatxe alde eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, erabilera publikoari dagokienez

TIPOLOGIA	ERABILERA PUBLIKOA (bisitariak)	GAZTELUGATXE ALDEA
Parke naturala	Bai	BAI
Natura-erreserba	Ez da debekatzen	BAI
Natura-monumentua	Ez da debekatzen	BAI
Paisaia natural babestua	Ez da debekatzen	BAI

8. taula. Gaztelugatxe alde eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, erabilera publikoari dagokionez

TIPOLOGIA	GAZTELUGATXE ALDEA		
	IZAERA/HELBURUAK	APROBETXAMENDUAK	ERABILERA PUBLIKOA (bisitariak)
Parke naturala	BAI	EZ	BAI
Natura-erreserba	BAI	BAI	BAI
Natura-monumentua	BAI	BAI	BAI
Paisaia natural babestua	BAI	EZ	BAI

Egindako azterketa kontuan hartuta, 9/2021 Legearen naturagune babestuen tipologia berria, Gaztelugatxe aldeko biotopo babestuari egokitzen zaiona, natura-monumentua edo natura-erreserba da.

9/2021 Legeak figura horietarako ezartzen duen definizioa kontuan hartuta, natura-erreserbak «neurrizko hedapena edo murriztua duten naturaguneak dira. Horrelako naturaguneak sortzeko helburua izango da ekosistema, komunitate edo elementu biologikoak babestea, baita interes geologikoko tokiak ere, zeinek horien urritasun, hauskortasun, garrantzi edo berezitasunarengatik balioespen berezia merezi baitute, eta baso heldu edo zaharrak edo baso-erreserbak edo baliokideak jaso ahal izango dira». Natura-monumentuak, berriz, «funtsean, babes bereziaren xede izatea merezi duten berezitasun, urritasun edo edertasun nabariko formazioek eratutako naturako gune edo elementuak. Bereziki, aparteko zuhaitzak eta basoak; habitat, fauna eta floraren mikroerreserbak, eta interes geologikoko tokiak, beren ezaugarriek horrela aholkatzen badute».

Alderdi horiek guztiak kontuan hartuta, 9/2021 Legearen naturagune babestuen tipologia berria, Gaztelugatxe aldeko biotopo babestuari egokitzen zaiona, natura-monumentua da.

1.1. Inurritza biotopo babestua

KOKAPENA



BIOTOPO PROTEGIDO
INURRITZIA

AZALERA: 81,28 ha



Inurritza errekaren bokalea



Golf-

zelaia, landaredi naturaleko eremuekin



Mineralaren deskarga-leku zaharra



Biotopoaren ikuspegi orokorra

8.2.4 Informazioaren azterketa

INURRITZAKO BIOTOPO BABESTUA	
Informazio-iturriak biltzea eta aztertzea.	
Deklarazioa eta kudeaketa-tresna	
<ul style="list-style-type: none"> • 40/1997 DEKRETUA, otsailaren 25ekoa, Inurritza ingurua babestutako biotopo deklaritzen duena. • 215/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko dena. Inurritza KBEa kontserbatzeko neurriak. 	
Gunea izendatzeko irizpideak identifikatzea	
<p>Biotopo babestu izendatu dute, EAEko kostaldeko ekosistema bereizgarrietako bat kontserbatu eta babesteko: dunak, padurak eta itsaslabarrak. Batetik, Zarauzko hondartzako ekialdeko muturrean dagoen duna-multzoa nabarmentzen da, bakanetakoa baita EAEn, eta, bestetik, padura nabarmentzen da, txikia izanik ere, ingurune horretako berezko landaredia baitu eta interes handiko gunea baita, hegazti migratzaileek atsedena hartzeko eta negua igarotzeko.</p> <p>Inurritzako biotopo babestuak barne hartzen ditu Inurritzako itsasadarra, Talaimendiko labarra eta duna-eta hondartza-eremua, itsasertzaren mugaraino.</p>	
Gunearen helburuak (kudeaketa-helburuak)	
<ul style="list-style-type: none"> • Babestutako eremuan dauden intereseko habitat eta espezieak babestea eta kontserbatzea, bereziki padura-komunitateak, hareatzak eta itsaslabarrak, ingurune horietako berezko flora- eta fauna-espezieak dituztenak; haietako batzuek oso hedadura txikia dute EAEn. <p>Zaharberitze-programa bat ezartzeko kosta-tarterik egokienetakoa da deklarazio-dekretuaren arabera. Biozenosiak hartzeko duen gaitasuna egokitu eta areagotu nahi da, bai eta ingurumena errespetatzen duten erabilera didaktikoarekin eta aisialdikoarekin bateratu ere.</p> <p>Bestalde, KBEaren kontserbazio-helburuen oinarria da giltzarritzat jotzen diren elementuak mantentzea edo horien aldeko egoera lortzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Inurritza KBEaren estuario-sistemaren funtzionaltasun osoa kontserbatzea eta lehengora ekartzea • Dunen sistemaren funtzionaltasun osoa kontserbatzea, mantentzea eta lehengora ekartzea • 1230 habitataren (Atlantikoko eta Baltikoko kostaldeetako landaredia duten itsaslabarrak) eta 4040* habitataren (Kostako txilardi lehorrak: <i>Erica vagans</i>) kontserbazio-egoera onari eustea 	
<p>Erabilera bateraezinak (debekatuak):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bertakoak ez diren espezieak sartzea. - Animalia basatiak hiltzea, kaltetzea, asaldatzea edo urduritzea, baita bizirik harrapatzea eta arrautzak eta kumeak biltzea ere, eta haien ugalketan aldaketak eragitea. - Obra-hondakinak, zaborrak eta produktu kutsatzaile solidoak botatzea eta likidoak isurtzea, eta habitata aldatzea dakarren edozein jardura burutzea, lehorretik zein itsasotik. - Meatokien aprobetxamendua eta harriak, agregakinak eta abar ateratzea - Sua piztea, lehendik dauden eraikuntzetan izan ezik. - Goi-tentsioko lineak instalatzea. - Lurzoruen degradazioa dakarren edozein jardura burutzea. - Eraikuntza-ekintza oro, salbu eta itsas zerbitzuei lotutako jabari publikoko eraikuntzak, biotopo babestua kudeatzeko eraikuntzak eta entretenimenduari eta obra publikoen zerbitzuari lotutako eraikuntzak eta instalazioak. - Pintadak egitea eta seinaleak eta abar jartzea, biotopo babestua kudeatzeko beharrezkoak direnak izan ezik. 	<p>Baimendutako erabilerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mendi-ibiliak egitea eta fauna eta flora behatzea. • Tradizioz egiten diren nekazaritza-jarduerak. • Hondartzari lotutako jolas-jarduerak eta golfean aritzea dauden instalazioetan. <p>Baimendu daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikerketa- eta hezkuntza-jarduerak. • Ingurumena lehengoratzeko jarduerak • Bertakoak ez diren landare-espezieak eta produktu fitosanitarioak erabiltzea.

<ul style="list-style-type: none"> - Lasaitasuna urratzea megafono, bozina, irrati-aparatu eta abarrekin. - Ibilgailu motordunekin bertara sartzea, kudeaketa- eta salbamendu-beharretarako izan ezik. - Itsasadarraren ezker aldean paseatzea eta egotea, bokaleko zubiaren eta N-634 errepideko zubiaren artean, salbu eta kudeaketa- eta salbamendu-beharren eta baimendutako nekazaritza-erabileren kasuan, lurzatiataraino bakarrik. - Kanpaldiak. - Atal honetan zehazturik egon ez arren, babestutako biotopo honetako natur ingurunearen elementuen kontserbazioa arriskuan jar dezaketen erabilera eta jardura guztiak. 	
---	--

Gunearen zonakatzea identifikatzea

Babes-eremu periferikoa


Guneak babes-eremu periferiko bat du; biotopoaren deklarazio-dekretuan ezarritako erabilera-araubidea du, eta biotopoaren gaineko inpaktuak arintzera bideratuta dago. Biotopo babestuaren azalera 51,75 ha-koa da. Babes-eremu periferikoak 98,05 ha hartzen ditu.

Beste babes-figura batzuk

- Inurritzako KBEa (81,28 ha), eta haren barruan dago biotopo babestua.
- I. taldeko hezegunea da, Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planaren arabera (160/2004 DEKRETUA, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duena, eta ondorengo aldaketak: AGINDUA, 2011ko maiatzaren 3koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Inbentarioa aldatzen baita eta 231/2012 DEKRETUA, urriaren 30koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzeko Dekretua aldatzeko dena).

8.2.5 NKNB kategoriaren proposamena

Biotopo babestua bat dator Inurritza KBEarekin; hala, haren barruan dago guztiz, baina mugak ez datoz bat. KBEak kudeaketa-tresna independente bat du biotopo babestuaren aldean, eta, ondorioz, bereizita aztertzen da zer NKNB kategoria esleitu. Hala ere, azterketa independente honetan ondorioztatu denez, kudeaketa-helburuak eta ezarritako erabilerak kontuan hartuta, esleitutako kategoria bera izango litzateke KBEarentzat eta biotopo babestuarentzat.



Balorazioa

Biotopo babestuaren kontserbazio-helburuak EAEko kostaldeko ekosistema bereizgarrienen irudikapenetan oinarritzen dira: dunak, padurak eta itsaslabarrak. Ereduak nekazaritza-jarduera tradizionalak ditu, bai eta golf-zelai bat ere bere barruan, gunearen kudeaketarekin zerikusirik ez duena, baina hark baldintzatutako erabilerak dituena, eremuaren barruan dagoelako. Kostaldean dago eta aisialdirako ohiko gunea da, baita fauna eta flora behatzeko ere. Jarduera horiek guztiak baimenduta daude.

Kontserbazio-neurriak ekosistema bereizgarrienak babestera eta lehengoratzera bideratuta daude; beraz, ekosistema horiek lehengoratzeko kudeatutako eremua da. Dagoeneko badauden erabilerak mantendu egiten dira, baina ez dute zuzeneko loturarik elementu garrantzitsuenen kontserbazioarekin. Ildo horretan, eta kudeaketa- eta kontserbazio-helburuak aintzakotzat hartuta, gunehorretako neurriak interesekoak diren ekosistemak lehengoratzera eta mantentzera bideratuta daude zuzenean, eta erabilerak tradizionalak, turistikoak eta aisialdikoak mantentzen dira. Eredu txikia bada ere, gutxi eraldatutako eta balio handiko ekosistemak kontserbatzea eta lehengoratzera sartzen da kudeaketa-helburuetan, baina gunearen eremu gehienetan jolas-erabilerari eusten zaio jarduera nagusi gisa; adibidez, golf-zelaiaren eta hondartzaren.

Golf-zelaia Inurritza ubidearen bokalearen eta Zarauzko hondartzaren arteko duna-sistemaren gainean dago, hain zuzen ere Batasunaren intereseko lehentasunezko 2130* habitatean (BIH), «Kostaldeko duna finkoak, belarki-landarediarekin (duna grisak)», eta azaleraren zati batean duna-sistema horietako flora eskusiboa dago. Biotopoaren eta ingurumen-inpaktuaren txostenaren 40/1997 deklarazio-dekretuarekin bat etorriz (EBAZPENA, 2021eko maiatzaren 3koa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez egiten baita Zarauzko Real Golf Klubaren (Gipuzkoa) instalazioen eta zelaiaren jarduera-proiektuaren ingurumen-inpaktuaren txostena), habitat naturalak mantendu eta kontserbatzeko programa espezifiko bat garatzeko beharra ezartzen da, eta, ingurumen-inpaktuaren txostenean bertan, kirol-jarduera hori kontserbazio-helburuekin bateragarri egiteko neurriak eta jarduerak zehazten dira. Horrela, jokozelaiaren barruan dauden eta gaur egun duna-flora eta -morfologia duten eremuen azalerari eusten zaiola bermatzeko neurriak ezartzen dira. Beraz, golf-zelaiaren eremua ere kudeatzen da duna-habitata mantentze eta lehengoratzeko aldera.

Inurritzako biotopo babesturako proposatzen den NKNB kategoria IV. kategoria da, alegia, Habitata edo espezieak kudeatzeko eremuak.

8.2.6 Naturagune babestuaren tipologia berria proposatzea

Biotopo babestu osoa Inurritzako KBEan dago, baina KBE horrek hedadura zabalagoa du eta itsaslabarretatik ekialderantz hedatzen da.

Ondorengo tauletan, Inurritzako biotopo babestuaren ezaugarriak eta 9/2021 Legean ezarritako tipologia berriekin duen lotura aztertzen dira, Natura 2000 Sareko babes-figurak barne.

EZ ipini da, baldin eta biotopoaren ezaugarriak, aprobetxamenduak eta erabilerak ez badatoz bat ezarritako figurarekin; oster, BAI, bateragarriak badira.

Esan bezala, Inurritzako eremuak zenbait paisaia-elementu ditu, eta horiek izaera berezia ematen diote zona babestuari. Horrela, antzinako meatze-jarduera dela-eta, minerala deskargatzeari lotutako egituren hondarrak daude itsaslabarretan; guneari balio kultural eta estetiko ematen diote eta eremuaren nortasunaren parte dira. Gainera, hondartza eta dunen eremuan golf-zelaia dago. Duna-sistemaren zati bat hartzen du, baina duna-florako landaredi naturaleko eremuei ere eusten die. Golf-zelai hori 1916an inauguratu zuten Espainiako Alfontso XIII.a Erregeak eta Maria Cristina Erreginak; EAEko zelairik zaharrenetako bat da. Zona horretako paisaiaren protagonista berezia da hainbat ezaugarriengatik: antzinatasuna, zelaiko zuloak landaretza naturaleko eremuekin tartekatzen dira, eta kokapena; izan ere, ubidearen bokalearen eta Zarauzko hondartzaren artean dago.

9. taula. Inurritzako biotopo babestua eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, kontserbazio-helburuei dagokionez

TIPOLOGIA	IZAERA/HELBURUAK	INURRITZA
Parke naturala	Eremu zabal samarrak eta gutxi transformatuak	EZ
Natura-erreserba	Neurrizko hedapena edo murriztua Ekosistema, komunitate edo interes geologikoko tokiak babestea	EZ
Natura-monumentua	Zuhaitzak, basoak, interes geologikoko tokiak, mikroerreserbak eta beste elementu batzuk	EZ
Paisaia natural babestua	Kontserbatzea eta naturaren eta kulturaren arteko interakzio harmoniatsua gordetzea	BAI

Taula10. Inurritzako biotopo babestua eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, aprobetxamenduei dagokionez.

TIPOLOGIA	APROBETXAMENDUAK	INURRITZA
Parke naturala	Bai (kontserbazioarekin bateragarriak)	EZ
Natura-erreserba	Mugatua, salbu eta ustiapen hori bateragarria denean	EZ
Natura-monumentua	Mugatua, salbu eta erabat koherentea bada balio edo inpaktu txikiko jarduera ekonomikoekin kontserbazioarekin	EZ
Paisaia natural babestua	Bai (kontserbatzen laguntzen dutenak mantentzea)	EZ

11. taula. Inurritzako biotopo babestua eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, erabilera publikoari dagokionez

TIPOLOGIA	ERABILERA PUBLIKOA (bisitariak)	INURRITZA
Parke naturala	Bai	BAI
Natura-erreserba	Ez da debekatzen	BAI
Natura-monumentua	Ez da debekatzen	BAI
Paisaia natural babestua	Ez da debekatzen	BAI

12. taula. Inurritzako biotopo babestua eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, erabilera publikoari dagokionez


TIPOLOGIA	INURRITZA		
	IZAERA/HELBURUAK	APROBETXAMENDUAK	ERABILERA PUBLIKOA (bisitariak)
Parke naturala	EZ	EZ	BAI
Natura-erreserba	EZ	EZ	BAI
Natura-monumentua	EZ	EZ	BAI
Paisaia natural babestua	BAI	EZ	BAI

Alderdi horiek guztiak kontuan hartuta, 9/2021 Legearen naturagune babestuen tipologia berria, Inurritzako biotopo babestuari egokitzen zaiona, paisaia natural babestua da. Honela definitzen da: «balio natural, estetiko eta kulturalengatik babes berezia merezi duten lurralde-eremuak dira, eta helburu hauek dituzte: bereizten dituzten aparteko balio estetiko, biologiko edo geologikoak kontserbatzea, eta naturaren eta kulturaren arteko interakzio harmoniatsua gordetzea toki zehatz batean, leku horretan bizi diren pertsonekin».

Inurritzako biotopo babestua zati batean bakarrik datorrenez bat KBEarekin, guneko zabaltzea gomendatzen da, bi guneen arteko mugak bat etor daitezela. Horrez gain, habitaten (itsaslabarrak eta dunak) eta erabileren (golf-zelaia) heterogeneotasuna dela eta, eremuaren zonakatzeko bat ezartzea gomendatzen da, jarduerak kudeatzeko eta antolatzeke helburuak zehazteko, zona bakoitzaren ezaugarrien arabera.

8.3 Laguardiako aintziren biotopoa

KOKAPENA



BIOTOPO PROTEGIDO
LAGUNAS DE
LAGUARDIA



0 0,275 0,55Km

AZALERA: 79,72 ha




8.3.1 Informazioaren azterketa

LAGUARDIAKO AINTZIREN BIOTOPO BABESTUA	
Informazio-iturriak biltzea eta aztertzea.	
Deklarazioa eta kudeaketa-tresna	
<ul style="list-style-type: none"> • 417/1995 DEKRETUA, irailaren 19koa, Biasteriko Carrallogroño, Carravalseca eta Prao de la Paul urmaelak babestutako biotopo izendatu zituen. • 255/1998 DEKRETUA, irailaren 29koa, Carrallogroño, Carravalseca eta Prao de la Paul urmaelak babestutako biotopo izendatu zituen dekretua aldatu zuena, Musco urmaela haren lurralde-eremuan sartzeko asmoz. • 34/2016 DEKRETUA, martxoaren 1ekoa, Laguardiako Aintzirak (ES2110021) Kontserbazio Bereziko Eremua izendatzen duena eta Laguardiako Aintziren Biotopo Babestuaren araudia eta mugaketa aldatzen dituena. • 36/2017 EBAZPENA, martxoaren 1ekoa, Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Laguardiako Aintziren Biotopo Babestuaren eta Laguardiako Aintzirak (ES2110021) Kontserbazio Bereziko Eremuaren Jarraibideak eta Kudeaketa Neurriak argitaratzea xedatzen duena. 	
Gunea izendatzeko irizpideak identifikatzea	
<p>Biotopo babestu izendatu dute, Guardiati gertu dauden aintzirak kontserbatu eta babesteko: Carrallogroño, Carravalseca, Prao de la Paul eta Musco aintzirak.</p> <p>Euskal Autonomia Erkidego osoan bakarra da, bere jatorri endorreikoagatik. Bertan, flora-endemismo ugari daude eta <i>Tolypela salina</i> gatz-alga artikulatua dago, mundu mailan bakana dena, baita lur gazi mediterraneoetako entomofauna ere. Era berean, 118 hegazti-espezie ere badaude, eta horien artean murgilari arrunta (<i>Aythya ferina</i>) nabarmentzen da; izan ere, hegazti hori ugaltzen den eremu bakarra da EAEn.</p> <p>Biotopoaren azalera 79,72 ha-koa da.</p>	
Gunearen helburuak (kudeaketa-helburuak)	
<p>Arau-tresnen bidez, biotopoaren kontserbazio-helburuak zehaztu dira, eta biotopoaren eta KBEaren eremuak bat datozenez, haietzako kudeaketa-tresna bakarra ezarri da, 34/2016 Dekretuan eta 36/2017 Ebazpenean jasoa.</p> <p>Kontserbazio-helburuak funtsezko elementuetarako ezarri dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Prao de la Paul aintzirako ur gezako habitaten potentzial ekologikoa lehengoratzeko, hezegunearen egoera ekologiko ona lortzeko, intereseko hegazti- eta ugaztun-espezieentzako habitataren gaitasuna hobetuz. • Aintzira endorreikoetan dauden habitat halofiloen kontserbazio-egoera ona lortzea. • Habitaten, belardien eta sastrakadien kontserbazio-egoera hobetzea, baita haien mende dauden fauna-espezieena ere. • Habitataren baldintza orokorrak hobetzea anfibio-espezieentzat. • KBEaren eta biotopo babestuaren biodibertsitatearen kontserbazio-egoera behar bezain zehatz ezagutzea. • KBEan eta biotopon eragina duten erabakiak hartzeko prozesuetan, gizartearen partaidetza sustatzea, bai eta hiritarrak kontserbazioan inplika daitezkeen bultzatzea ere. • Erakunde publiko eskudunen arteko koordinazioa hobetzea eta ingurumen eta sektore araudia egokitzea. • Inguruko beste KBE batzuekiko lotura ziurtatzea (KBEa bakarrik). 	
<p>Erabilera bateraezinak (debekatuak): Carrallogroño, Carravalseca eta Musco aintziren oheetan eta ertzetan: - Guztiak, baimendu daitezkeenak izan ezik. Carrallogroño eta Carravalsecako oheetan eta ertzetan:</p>	<p>Baimendutako erabilerak eta baimendu daitezkeenak: Carrallogroño, Carravalseca eta Musco aintziren oheetan eta ertzetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <u>Baimendutako erabilerak:</u> bat ere ez.

<p>- Guztiak, baimendutako eta baimendu daitezkeen erabilerak izan ezik.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • <u>Baimendu daitezkeen erabilerak</u>: behaketa eta ikerketa zientifikoa/ingurumena hobetzeko eta lehengoratzeko jarduerak, aldaketa larri ez-naturalengatik. <p><u>Prao de la Pauleko ohean eta ertzetan:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • <u>Baimendutako erabilerak</u>: Behaketa eta ikerketa. • <u>Baimendu daitezkeen erabilerak</u>: hezegunea egokitzeke kudeaketa-lanak.
<p>Gunearen zonakatzea identifikatzea</p>	
<p>Babes-eremu periferikoa</p>	
<p>Guneak babes-eremu periferiko bat du, honako hauek barnean hartzen dituena:</p> <p>a) Carralagroño, Carravalseca eta Musco aintziretan, babestutako eremua inguratzen duen isurialdeen arro naturala, A-124 errepidetik 25 metro hegoaldera.</p> <p>b) Prao de la Paulen, babestutako eremuaren inguruan 100 metroko zerrenda, eta San Ginés ibaitik ura eramateko hodiak zeharkatzen duen lur-zerrenda.</p> <p>Eremu periferiko horretarako biotopoaren deklarazio-dekretuan ezarritako erabilera-araubideak honako hauek barne hartzen ditu: ingurune naturalarekin bateragarria den nekazaritza sustatzea, landaredi naturala lehengoratzeta eta kontserbatzea, horma eta eraikin tradizionalak berreraikitzea eta hondarrik gabeko pestizida erabiltzea.</p> <p>Baimendutako erabilerei dagokienez, berriz, jarduera zientifikoak eta dibulgaziokoak, basogintza, nekazaritza eta abeltzaintza estentsiboa, ibilgailuekin lehendik dauden bideetan ibiltzea eta ibilaldiak eta txangoak. Debekatuta dago aintziretan aldaketak eragin ditzakeen edozein jarduera egitea, bai eta erabilera publikoa ere, jolas-jarduera intentsiboa eta kanpaldia barne. Prao de la Paul aintziraren eremu periferikoan, baimentzen da erabilera publikoa.</p>	
<p>Beste babes-figura batzuk</p>	
<ul style="list-style-type: none"> • Laguardiako Aintziren KBEa (ES2110021) bat dator, mugei dagokienez, martxoaren 1eko 34/2016 EBAZPENEAN jasotako zabaltze-proposamenak babestutako biotopoarekin. • I. taldeko hezegunea da, Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planaren arabera (160/2004 DEKRETUA, uztailearen 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duena, eta ondorengo aldaketak: AGINDUA, 2011ko maiatzaren 3koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Inbentarioa aldatzen baita eta 231/2012 DEKRETUA, urriaren 30koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzeko Dekretua aldatzeko dena). 	

8.3.2 NKNB kategoriaren proposamena

Biotopo babestua bat dator KBE batekin; muga berberak dituzte. Bietarako kudeaketa-tresna bakarra dago. Tresna horrek bi eremu horiek hartzen ditu barne, eta ez da bereizten batera edo bestera bideratutako kudeaketa-neurririk. Hori dela eta, NKNBren kategorien azterketa gune osoari esleitzen zaio.



Biotopo babestuak eta KBEak EAEko zenbait salbuespenezko aintziraren arroa eta urertzak hartzen dituzte barnean, jatorri endorreikoa dutelako. Iraganean ekosistemak eraldatu zituzten hainbat erabilera antropiko garatu badira ere, batez ere Musco aintziraren kasuan, horiek kendu eta leheneratu egin dira. Beraz, gaur egun, gutxi eraldatutako ekosistematzat har daitezke, eta horiek babestea erabaki da, interes handiko elementuak babesteko helburuarekin, hala nola flora endemikoa eta fauna, aintziretako ingurune hezeei eta haien formazio geologikoaren bikaintasunari lotuta baitaude. Alde horretatik, kontserbazio-helburuak habitat eta espezie zehatzak babestera bideratuta daude, bai eta izaera bereziko elementu bat babestera ere, hala nola jatorri endorreikoa duten EAEko zenbait aintzira.

Gaur egun, baimendutako edo baimendu daitezkeen erabileren artean, behaketa eta ikerketa zientifikoa eta ingurumena hobetzeko eta lehengoratzeko jarduerak baino ez dira jasotzen, beharrezkoak badira. Gainerako erabilerak debekatuta daude.

Beraz, erabilerak oso mugatuta daude, alegia, erauzketa-jarduerak oso mugatuak dira eta ekosistemen naturaltasuna kontserbatzera eta lehengoratzera bideratutako kudeaketarako gauzatzen dira.

Bestalde, ez dago erabilera publikorik; alegia, ez daude bisitarien naturarekiko harremana eta balioen ezagutza sustatzeko antolatutako eta egituratutako jarduerak, gunea kudeatzeko helburuetan jasota egonda ere.

Kontuan izan behar da biotopo gisa mugatutako gunea aintziretara, horien ertzetara eta inguruko bide batzuetara mugatzen dela, eta eremu periferikoan biltzen direla jarduera jakin batzuk.

Horregatik, Laguardiako aintziren biotopo babesturako proposatutako NKNB kategoria I.a kategoria da, alegia, NATURA-ERRESERBA ZORROTZA.

8.3.3 Naturagune babestuaren tipologia berria proposatzea

Laguardiako aintziren biotopo babestua KBE izendatutako eremu baten barruan dago, eta bat dator haren mugekin. Horrenbestez, biotopoari naturagune babestuaren tipologia berri bati esleitzea aztertzen da; nolahi ere, KBEaren esleipenari eutsiko zaio.

Ondorengo tauletan, Laguardiako aintziren biotopo babestuaren ezaugarriak eta 9/2021 Legean ezarritako tipologia berriekin duen lotura aztertzen dira. EZ ipini da, baldin eta biotopoaren ezaugarriak, aprobetxamenduak eta erabilerak ez badatoz bat ezarritako figurarekin; ostera, BAI, bateragarriak badira.

13. taula. Laguardiako aintziren biotopo babestua eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, kontserbazio-helburuei dagokienez

TIPOLOGIA	IZAERA/HELBURUAK	LAGUARDIAKO AINTZIRAK
Parke naturala	Eremu zabal samarrak eta gutxi transformatuak	EZ
Natura-erreserba	Neurrizko hedapena edo murriztua Ekosistema, komunitate edo interes geologikoko tokiak babestea	BAI
Natura-monumentua	Zuhaitzak, basoak, interes geologikoko tokiak, mikroerreserbak eta beste elementu batzuk	EZ
Paisaia natural babestua	Kontserbatzea eta naturaren eta kulturaren arteko interakzio harmoniatsua gordetzea	EZ

14. taula. Laguardiako aintziren biotopo babestua eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, aprobetxamenduei dagokienez

TIPOLOGIA	APROBETXAMENDUAK	LAGUARDIAKO AINTZIRAK
Parke naturala	Bai (kontserbazioarekin bateragarriak)	EZ
Natura-erreserba	Mugatua, salbu eta ustiapen hori bateragarria denean	BAI
Natura-monumentua	Mugatua, salbu eta erabat koherentea bada balio edo inpaktu txikiko jarduera ekonomikoen kontserbazioarekin	BAI
Paisaia natural babestua	Bai (kontserbatzen laguntzen dutenak mantentzea)	EZ

15. taula. Laguardiako aintziren biotopo babestua eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, erabilera publikoari dagokionez

TIPOLOGIA	ERABILERA PUBLIKOA (bisitariak)	LAGUARDIAKO AINTZIRAK
Parke naturala	Bai	EZ
Natura-erreserba	Ez da debekatzen	BAI
Natura-monumentua	Ez da debekatzen	BAI
Paisaia natural babestua	Ez da debekatzen	BAI

16. taula. Laguardiako aintziren biotopo babestua eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, erabilera publikoari dagokionez

TIPOLOGIA	LAGUARDIAKO AINTZIRAK		
	IZAERA/HELBURUAK	APROBETXAMENDUAK	ERABILERA PUBLIKOA (bisitariak)
Parke naturala	EZ	EZ	EZ
Natura-erreserba	BAI	BAI	BAI
Natura-monumentua	EZ	BAI	BAI
Paisaia natural babestua	EZ	EZ	BAI

Alderdi horiek guztiak kontuan hartuta, 9/2021 Legearen naturagune babestuen tipologia berria, Laguardiako aintziren biotopo babestuari egokitzen zaiona, natura-erreserba da.

9/2021 Legeak figura horietarako ezartzen duen definizioaren arabera,– natura-erreserbak «neurritzko hedapena edo murriztua duten naturaguneak dira. Horrelako naturaguneak sortzearen helburua izango da ekosistema, komunitate edo elementu biologikoak babestea, baita interes geologikoko tokiak ere, zeinek horien urritasun, hauskortasun, garrantzi edo berezitasunarengatik balioespen berezia merezi baitute, eta baso heldu edo zaharrak edo baso-erreserbak edo baliokideak jaso ahal izango dira».

Aprobetxamenduen araubidearekin bateragarritzat jotzen da, ez baita bat ere baimentzen, eta erreserban bateragarriak direnak bakarrik baimentzen dira, kasu honetan bat ere ez. Era berean, bateragarria da erabilera publikorik ez izatea, 9/2021 Legearen arabera ez baita gune mota horren helburua.

8.4 Meatzaldea-Zona Minera de Bizkaia biotopo babestua

KOKAPENA



BIOTOPO PROTEGIDO
MEATZALDEA



0 0,75 1,5Km

AZALERA: 957,53 ha





8.4.1 Informazioaren azterketa

MEATZALDEA-ZONA MINERA DE BIZKAIA BIOTOPO BABESTUA
Informazio-iturriak biltzea eta aztertzea.
Deklarazioa eta kudeaketa-tresna
<ul style="list-style-type: none"> • 26/2015 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, Meatzaldea-Zona Minera de Bizkaia, Biotopo Babestua izendatzeko dena. Dekretu hori gunea kudeatzeko tresna da • 1113/2015 Foru Agindua, ekainaren 17koa, Meatzaldea biotopo babestuan ibilgailu motordunen joan-etorri askerako pistak ezartzen dituen, motorretarako eta quad-etarako izan ezik
Gunea izendatzeko irizpideak identifikatzea
<p>Biotopo babestu izendatua, babes berezia merezi duten berezitasun, bitxitasun, edertasun edo interes zientifiko nabarmeneko formazioak dituen gunea delako. Burdinazko zainengatik ustiatutako eremua da. Hala, ustiapenaren ondorioz, paisaia oso bitxi bat sortu da —bakarra Euskal Autonomia Erkidegoan—, eta horren balioak meataritzaren legatuarekin eta haren kultura-ondarearekin lotuta daude.</p> <p>Eremuaren egitura karstikoa toki askotan azaltzen da (torkak, iturriak, hobiak...), eta nabarmenenak orratzeko lapiazak dira; lur azpian, berriz, haitzulo ugari dago, Euskal Autonomia Erkidegoko dentsitate handienetakoa baitugu bertan. Eremuan, burdina ateratzeko irekitako orbainak dira inguruko paisaiaren erakargarriak handienetako bat.</p>
Gunearen helburuak (kudeaketa-helburuak)
<ol style="list-style-type: none"> 1. Paisaia babestu dadin ziurtatzea, degrada ez dadin, eta balioa ematea bultzatzea. <ul style="list-style-type: none"> • Egungo paisaia zaindu dadin ziurtatzea eta, horretarako, haren kalitatea zaintzearekin bateragarri ez diren erabilerak ezar edo areagotu daitezkeen debekatzea. • Biotopo babestuko paisaiari balioa ematea, bai naturaren aldetik, bai meataritzaren aldetik. 2. Natura-ondarea eta ondare geologikoa zaindu dadin bermatzea, endokarsta eta exokarsta barne. <ul style="list-style-type: none"> • Sistema karstikoa eta biodibertsitatea osotasunean babestea, kudeatzea, aztertzea eta ezagutaraztea. • Egun eremuan dauden zuhaitz-habitat autoktonoen azalera handitzea eta haien egoera ekologikoa hobetzea; funtsean, harizti eta artadiena. • Habitat erdi-natural interesgarriak (nagusiki, arantzadiak, heskaiak, txilardiak eta larre mesofiloak) aktiboki zaintzea. 3. Kultura-ondarea zaindu dadin ziurtatzea, ondare arkeologikoa eta meataritzaren aztarnak barne. <ul style="list-style-type: none"> • Areatza haitzuloa babestu dadin ziurtatzea. • Ondare arkeologikoaren barruan interes berezia duten beste elementu batzuk (monumentu megalitiko eta haizeolak) babestu daitezkeen ziurtatzea eta iker eta ezagutaraz daitezkeen bultzatzea. • Meataritzaren ondarea balioestea. 4. Erabilera tradizionalei eustea eta haiek garatzea, jasangarritasun-irizpideei jarraituz eta paisaia eta natura- eta kultura-ondarea zaintzearekin bateragarri eginez. <ul style="list-style-type: none"> • Abeltzaintzari eustea eta hura antolatzea, intereseko habitat erdi-naturalak eta paisaia zaintzea bermatzen duen aldetik. • Basogintzak lehentasun handiagoa ematea ingurumen-, kultura- eta paisaia-gaiei basoen produktibitateari baino.

- Higadura-arriskua txikiagotzea.
5. Ingurune naturaleko aisialdiko jarduerak eta erabilera publikoak antolatzea, inguruko balioak zaintzarekin bateragarri eginez.
- Erabilera publikoa antolatzea, ingurune naturalaren aisialdiko erabilera dekretu honetako 2. artikuluan finkatutako gainerako helburuen mende dagoela ziurtatuz.
 - Eremu babestuko ingurumen-gaien gaineko sentsibilizazioa sustatzea.

Erabilera bateraezinak (debekatuak):

- Azpiegitura berriak (besteak beste, garraiobideak, aireko lineak, lurpekoak, zerbitzu-instalazio tekniko ez-linealak, parke eolikoak, hondakindegia eta zabortegiak).
- Eraikinak eta eraikuntzako erabilera berriak, salbu eta eremua bera babesteko eta kudeatzeko badira edo kudeaketa-organoak beharrezko jotzen baditu biotopo babestuko erabilera tradizionaleri eusteko. Horrelakoak baimentzeko, beharrezkoa da kudeaketa-organoak txosten bat egitea aurrez.
- Hondakinak (tartean, ganadu-gorpuak) eta basoko hondakinak botatzea edo uztea berariaz baimendu gabeko lekuetan eta, bereziki, leize, dolina eta barrunbeetan.
- Baliabide mineralak eta gainerako baliabide geologikoak erazteko jarduerak, ezta aztarnategiak ikertzeko jarduerak ere.
- Barrunbeetara egindako bisitetan sistema karstikoaren baldintzak alda ditzakeen edozein jarduera.
- Ur-hargune berriak egitea, ez badira beharrezkoak eremuan baimendutako erabilerekin.
- Mineralak, arroak eta fosilak biltzea, bilduma-edo merkataritza-helburuekin
- Erabilera aldatzea, baldin eta aldaketak zuhaitz-habitat autoktonoak artifizialki txikiagotzea badakar
- Arrisku berezian dauden fauna-taldeak daudela jakina den barrunbeetan eta lekuetan sartzea, salbu eta ikerketarako eta kudeaketarako. Horretarako, kudeaketa-organoak baimena eman behar du aurrez.
- Ibai eta hezeguneetan arrantzatzea.
- Martxoaren 1etik irailaren 15era bitartean Escarpada gunean eta Aranaga sakanean eskalatzea.
- Debekatuta dago edozein erabilera, ondarea ikertzeko eta ezagutarazteko izan ezik, kultura-ondasun izendatu edo izendatzen diren monumentu megalitiko eta haizeolen 5 metroko inguruan. Ondarea ikertzeko eta ezagutarazteko, kudeaketa-organoak baimena eman behar du aurrez.
- Debekatuta dago ahuntz-azienda
- Espezie aloktonoak landatzea
- Arraseko mozketak egitea, motzondoak erazte eta lurra mugitzea lur karstikoetan, baita ondare

Baimendutako erabilerak:

Ez dira ezartzen. Kudeaketa-planean jaso direnak aipatu dira.


- Pisten sare nagusia mantentzea eta behar ez diren pisten ingurumena lehengoratzeta.
- Interpretaziorako leku egokien ikuspena mantentzea
- Herritarrek balioak zabaltzen parte-hartzea sustatzea
- Balioak aztertu, babestu eta zabaltzea bultzatzea
- Abeltzaintza-jarduera: jarduera tradizionala, kudeaketa antolatuarekin
- Ehiza: ehiza-araubide bereziko eremutat hartu da, eta ehizaren kudeaketa antolatzeko eta gauzatzeko beharrezko diren xedapenak garatu beharko dira
- Garatzen diren jarduerak bateragarriak izan behar dute babes-helburuekin.
- Lehendik dauden basogintzako eta nekazaritzako eta basogintzako ustiategiak

Baimendu daitezkeen erabilerak:


- Lehendik dauden eraikin eta azpiegituretako erabilera zabaltzeko edo aldatzeko edozein obra
- Mineralak, arroak eta fosilak biltzea, helburu didaktiko, hezkuntzako edo ikerkuntzakoekin.
- Substantzia kimikoak erabiltzen diren edozein jarduera.
- Sua erabiltzea landaredia kontrolatzeko
- Taldeko kirol-probak, oinez, bizikletaz edo ibilgailu motordunekin
- Arenatza kobaren sistema karstikoari eragin diezaiokkeen edozein esku-hartze.
- Ibilgailu motordunen joan-etorria biotopo babestuaren eremuan, baita nekazaritzako eta basogintzako erabileren kasuan ere

<p>arkeologikoaren barruko elementuetan eragina izan dezaketen lekuetan ere.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Baso-pista berriak sortzea - Debekatuta dago herri-lanak egiteko edo basogintzan aritzeko makina astunak sartzea biotopo babestuan, kudeaketa-organoaren baimenik gabe. - Debekatuta dago aisialdian egurra moztea eta sua piztea, La Berenilla jolaslekuan horretarako egokitutako egituretan izan ezik. - Debekatuta dago kanpaldi librea eta jolas-kanpamentuak ezartzea. 	
Gunearen zonakatzea identifikatzea	
Babes-eremu periferikoa	
<p>Guneak ez du ezarritako zonakatzerik, baina babes-eremu periferiko bat mugatzen da, biotopo babesturako ezarritako helburuak betetzen laguntzeko, bai eta kanpotik etor daitezkeen ekologia- eta paisaia-inpaktuak saihesteko ere.</p> <p>Biotopo babestuaren azalera 957,53 ha-koa da, eta babes-eremu periferikoak 261,5 ha hartzen ditu.</p>	
Beste babes-figura batzuk	
<ul style="list-style-type: none"> • «Burdina-zainak» interes geologikoko tokia (141. IGT) Laia-El Saucon (Galdames) 	

8.4.2 NKNB kategoriaren proposamena



Esleitutako kategoria egiaztatzeko zuhaitza



Balorazioa

Meatzaldea modelatze karstikoko eremua da, eta historian zehar burdina-zainak ustiatzearen eraginez, berezitasun handiko paisaia paregabea sortu da; hain zuzen ere, paisaia hori da alderdi erakargarri nagusia. Meatze-ondarearekin eta haren kultura-ondarearekin lotutako paisaia da.

Biotopoaren deklarazio-dekretuak kontserbazio-helburuak ezartzen ditu, hau da, paisaia eta kultura-ondarea babestea, bai eta natura- eta geologia-ondarea ere. Helburu horiez gain, gunearekin bateragarriak diren erabilera tradizionalak mantentzea eta garatzea ere aipatu behar da, baita gunearekin bateragarria den erabilera publikoa ere.

Hortaz, eremu horretan, lurraldeari mendeetan zehar lotutako giza erabilerak (kasu honetan, meatze-ustiapenak) modelatu dute paisaia aparteko, bereizgarri eta balio natural eta kultural handikoa, eta hori da, hain zuzen ere, ondarea babestearen xedea. Beraz, gaur egun meatzaritza-jarduerarik egiten ez bada ere, jendeak denboran zehar naturarekin izan duen elkarreraginaren ondorioz sortu da aparteko eremu hori.

Horrenbestez, bat dator NKNBk V. kategoriarako (Paisaia babestua) ezarritako definizioarekin: «*Eremu horietan, jendeak eta naturak denboran zehar izan duten elkarreraginak eremu bereizgarri bat sortu du, balio ekologiko, biologiko, kultural eta pintoresko esanguratsua duena; eta elkarrekintza horren osotasuna babestea ezinbestekoa da eremua eta haren kontserbazio naturala eta beste balio batzuk babesteko eta mantentzeko*».

Erabilerak eta aprobetxamendua arautzeari dagokionez, biotopo babestuaren deklarazio-dekretuan bertan arautzen dira. Mantendu eta arautu egiten dira, nekazaritza- eta basogintza-aprobetxamendurekin lotutako erabilera tradizionalak kontserbazioarekin bateragarriak izaten jarrai dezaten.

Gainera, erabilera publikoa kudeatzeko helburuak eta neurriak ere planteatzen dira. **Horren haritik, azpimarratu behar da biotopo babestuaren barruan Eretza mendiaren gailurra eta beste tontor batzuk daudela. Mendi-ibiltariek eta mendizaleek sarritan bistatzen duten eremua da, eta paisaia-mugarri garrantzitsua da inguru horretan.**

Alderdi horiek kontuan hartuta, esleitutako NKNB kategoria paisaia babestuaren kategoriari dagokio, hots, V. kategoriari. Izan ere, helburu nagusia mendeetan zehar jendearen eta naturaren arteko elkarrekin eratu duen paisaia babestea da. Kasu honetan, burdina-zainen mendeetako ustiapenari lotuta dago. Jarduera hori, gaur egun jarraipenik ez duen arren, inguruko paisaiaren berezitasunaren erantzulea da.

8.4.3 Naturagune babestuaren tipologia berria proposatzea

Ondorengo tauletan, Meatzaldea biotopo babestuaren ezaugarriak eta 9/2021 Legean ezarritako tipologia berriekin duen lotura aztertzen dira. EZ ipini da, baldin eta biotopoaren ezaugarriak, aprobetxamenduak eta erabilerak ez badatoz bat ezarritako figurarekin; ostera, BAI, bateragarriak badira.

17. taula. Meatzaldea eta naturagune babestuaren tipologia berriak aztertzea, kontserbazio-helburuei dagokienez

TIPOLOGIA	IZAERA/HELBURUAK	MEATZALDEA
Parke naturala	Eremu zabal samarrak eta gutxi transformatuak	EZ
Natura-erreserba	Neurrizko hedapena edo murriztua Ekosistema, komunitate edo interes geologikoko tokiak babestea	EZ
Natura-monumentua	Zuhaitzak, basoak, interes geologikoko tokiak, mikroerreserbak eta beste elementu batzuk	EZ
Paisaia natural babestua	Kontserbatzea eta naturaren eta kulturaren arteko interakzio harmoniatsua gordetzea	BAI

18. taula. Meatzaldea eta naturagune babestuaren tipologia berriak aztertzea, aprobetxamenduei dagokienez

TIPOLOGIA	APROBETXAMENDUAK	MEATZALDEA
Parke naturala	Bai (kontserbazioarekin bateragarriak)	BAI
Natura-erreserba	Mugatua, salbu eta ustiapen hori bateragarria denean	BAI
Natura-monumentua	Mugatua, salbu eta erabat koherentea bada balio edo inpaktu txikiko jarduera ekonomikoen kontserbazioarekin	BAI
Paisaia natural babestua	Bai (kontserbatzen laguntzen dutenak mantentzea)	BAI

19. taula. Meatzaldea eta naturagune babestuaren tipologia berriak aztertzea, erabilera publikoari dagokienez

TIPOLOGIA	ERABILERA PUBLIKOA (bisitariak)	MEATZALDEA
Parke naturala	Bai	BAI
Natura-erreserba	Ez da debekatzen	BAI
Natura-monumentua	Ez da debekatzen	BAI
Paisaia natural babestua	Ez da debekatzen	BAI

20. taula. Meatzaldea eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, erabilera publikoari dagokionez

TIPOLOGIA	MEATZALDEA		
	IZAERA/HELBURUAK	APROBETXAMENDUAK	ERABILERA PUBLIKOA (bisitariak)
Parke naturala	EZ	BAI	BAI
Natura-erreserba	EZ	BAI	BAI
Natura-monumentua	EZ	BAI	BAI
Paisaia natural babestua	BAI	BAI	BAI

Egindako azterketa kontuan hartuta, 9/2021 Legearen naturagune babestuen tipologia berria, Meatzaldea-Zona minera de Bizkaia biotopo babestuari egokitzen zaiona, paisaia natural babestua da.


9/2021 Legeak figura horietarako ezartzen duen definizioa kontuan hartuta, paisaia natural babestuak «balio natural, estetiko eta kulturalengatik babes berezia merezi duten lurralde-eremuak dira. Hauek dira helburuak: a) bereizten dituzten aparteko balio estetiko, biologiko edo geologikoak kontserbatzea, eta b) naturaren eta kulturaren arteko interakzio harmoniatsua gordetzea toki zehatz batean, leku horretan bizi diren pertsonekin».

Meatzaldea modelatze karstikoko eremua da, eta historian zehar burdina-zainak ustiatzearen eraginez, berezitasun handiko paisaia paregabea sortu da; hain zuzen ere, paisaia hori da alderdi erakargarri nagusia. Meatzaldea-ondarearekin eta haren kultura-ondarearekin lotutako paisaia da, eta horiek dira gunearen izendapenaren helburu orokorrak, hau da, paisaia eta kultura-ondarea babestea, bai eta natura- eta geologia-ondarea ere. Helburu horiez gain, gunearekin bateragarriak diren erabilera tradizionalak mantentzea eta garatzea ere aipatu behar da, baita gunearekin bateragarria den erabilera publikoa ere.

Beraz, 9/2021 Legean jasotako **paisaia natural babestuaren** definizioari bikain egokitzen zaion eremua da, natura- eta kultura-balioengatik babestu baita, eta haren helburuen artean baitago gizakiak naturarekin duen elkarreaginaren ondoriozko balio horiek mantentzea.

8.5 Leitzaran ibaiko biotopo babestua

KOKAPENA




BIOTOPO PROTEGIDO
RIO LEITZARAN



0 1 2Km
|-----|-----|

AZALERA: 68,84 ha



8.5.1 Informazioaren azterketa

LEITZARAN IBAIKO BIOTOPO BABESTUA	
Informazio-iturriak biltzea eta aztertzea.	
Deklarazioa eta kudeaketa-tresna	
<ul style="list-style-type: none"> • 416/1995 DEKRETUA, irailaren 29koa, Leizaran ibaia babestutako biotopo deklaratu duena. • 215/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko dena. • 34/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (BBE) arau orokorrak onartzen dituena. 	
Gunea izendatzeko irizpideak identifikatzea	
<p>Leizaran ibairako eta haren zortasun-zerrendarako biotopo babestu izendatua (5 metro ibilguaren alde banatan), bertako uren kalitate handia eta flora eta faunari lotutako balioak direla eta. Balio geomorfologiko nabarmena du hainbat elementurengatik: ibilgu meandri-formea, Gipuzkoako haltzadi oligotrofikorik onena, Gipuzkoako esfagnalik zabalena, eta balio handiko hainbat flora eta fauna espezie, hala nola uhandre pirinotarra (<i>Calotriton asper</i>) eta muturluze pirinotarra (<i>Galemys pyrenaicus</i>), besteak beste.</p>	
Gunearen helburuak (kudeaketa-helburuak)	
<p>Biotopoaren deklarazio-dekretuak ez du kudeaketa-helburu zehatzik ezartzen, eremuaren balioak aipatzeaz gain; aurreko apartatuan jaso dira horiek.</p> <p>KBEaren kudeaketa-tresnak kontserbazio-helburuak ezartzen ditu, eta horien oinarria da giltzarritzat jotzen diren elementuak mantentzea edo horien aldeko egoera lortzea: Haltzadi eta lizardien 91E0 BIH, mehatxatutako flora (<i>Soldanella villosa</i>, <i>Vandenbochia speciosa</i> eta beste batzuk), uhandre pirinotarra (<i>Calotriton asper</i>), bisoi europarra (<i>Mustela lutreola</i>), muturluze pirinotarra (<i>Galemys pyrenaicus</i>), arrain-komunitatea, abifauna (ur-zozoa eta martin arrantzalea, batez ere) eta ibai-korridore ekologiko gisa betetzen duen funtzioa.</p>	
<p>Erabilera bateraezinak (debekatuak). Biotopoaren deklarazio-dekretuan honako hauek ezartzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ibilgua edo ibaiertzak aldatzea dakarten ekintzak, baimendu daitezkeenak izan ezik. - Landarediaren osaera edo egitura aldatzea. - Bertakoak ez diren flora eta fauna basatiko espezieak sartzea. - Basa-fauna jazartzea, ehizatzea edo harrapatzea, baimendutako baldintzetan arrantzatzea izan ezik. - Urak degradatu edo kutsa ditzaketen solidoak botatzea edo likidoak isurtzea, indarrean dagoen araudiaren arabera. - Eraikuntza-jarduerak. - Apartatu honetan zehazturik egon ez arren, babestutako biotopo honetako natur ingurunearen elementuen kontserbazioa arriskuan jar dezaketen erabilera eta jarduera guztiak. 	<p>Biotopoaren deklarazio-dekretuan baimendutako erabilera hauek ezartzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zientzia- eta dibulgazio-jarduerak. - Ibilgailu motordunekin egiten ez diren ibilaldiak eta txangoak. - Jabari publiko hidraulikoari lotuta dauden instalazioak eta ekipamenduak. - Ibilgailu motordunekin ibiltzea, nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako erabileretarako, eta dauden bideetako instalazioak kudeatzeko, erabiltzeko eta mantentzeko beharretarako - Dauden nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerak. <p>Baimendu daitezkeen erabilerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Baso-masaren jarduerak, uren zirkulazio askea erraztera bideratuak. - Linea elektrikoak eta komunikaziokoak. - Ibilgailu motordunekin ibiltzea dauden pistetan. - Uretako jolas-jarduerak. - Lehendik dauden azpiegiturak mantentzea eta ordezkatzeta. - Flora eta fauna autoktonoko espezieak sartzea.
Gunearen zonakatzea identifikatzea	
Babes-eremu periferikoa	
<p>Guneak ez du ezarritako zonakaterik, baina babes-eremu periferiko bat mugatzen da, Leizaran ibaira isurtzen diren uren arro naturala barne hartzen duena.</p>	


Biotopo babestuaren azalera 68,84 ha-koa da.

Beste babes-figura batzuk

- Leitzaran ibaiko KBEa (ES2020013).
- Interes bereziko eremua muturluze piriniotarrantzat (*Galemys pyrenaicus*) eta bisoi europarrantzat (*Mustela lutreola*), espezie horien kudeaketa-planen arabera (2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduak).

8.5.2 NKNB kategoriaren proposamena

Biotopo babestua bat dator ES2120013 KBEarekin, baina ez datoz guztiz bat; izan ere, KBEak biotopon sartuta ez dauden ibai-tarte batzuk hartzen ditu. Hala, biotopoaren azalera 68,84 ha-koa da, eta KBEarena 91,91 ha-koa. Hala eta guztiz, bi guneak batera aztertzen dira, KBEaren kudeaketa-tresnak biotopoarenari egiten baitio erreferentzia, eta bere gain hartzen baitu, jarduerak arautzeari dagokionez.



Biotopoari/KBEari esleitutako kategoria egiaztatzeko zuhaitza	
<p>IV. KATEGORIA. HABITATAK/ESP EZIEAK KUDEATZEKO EREMUA</p>	<p>Espezie edo habitat jakinak babesten dituzten eremuak dira, eta horien erabilerak lehentasun hori islatzen du. IV. kategoriako eremu babestu askok esku-hartze erregular eta aktiboak beharko dituzte espezie jakin baten eskakizunei heltzeko edo habitatak mantentzeko, baina hori ez da kategoriaren betekizun bat.</p>
<p>Helburu nagusia al da espezieak eta/edo habitatak mantentzea, kontserbatzea eta lehengoratzeta?</p>	
<p>BAI</p>	<p>Ekosistema naturalak edo eraldatuak dira, baina garrantzitsuak espezie edo habitat jakin batzuentzat, eta horien esku-hartzea aktiboa da?</p>
<p>BAI</p>	<p>Kudeaketako esku-hartzeak zuzenean egiten al dira izendapenaren xede diren espezietan edo habitatetan?</p>
<p>BAI</p>	
Balorazioa	
<p>Biotopo babestuaren deklarazio-dekretuak ez du kontserbazio-helburu zehatzik ezartzen, baina eremuaren balioak nabarmentzen ditu. Hala, balio geomorfologiko nabarmena du hainbat elementurengatik: ibilgu meandriformea, Gipuzkoako haltzadi oligotrofikorik onena, Gipuzkoako esfagnalik zabalena, eta balio handiko hainbat flora eta fauna espezie, hala nola uhandre piriniotarra (<i>Calotriton asper</i>) eta muturluze piriniotarra (<i>Galemys pyrenaicus</i>), besteak beste. KBEa hein handi batean bat dator biotopo babestuekin, eta kontserbazio-helburuak ezartzen ditu, gunearen funtsezko elementuetan zentratuta eta funtsezko elementu horiek mantentzera edo horien aldeko egoera lortzera bideratuta.</p> <p>Horregatik, naturagune babestua ekosistema eta espezie interesgarriak babesteko izendatu da, batez ere haltzadia eta ingurune urtarrari lotutako espezieak babesteko.</p> <p>Gunearen erabilerak urriak dira, populazio-dentsitate txikiko eremua baita; hala ere, biotopoaren deklarazio-dekretuan erabilera onargarriztat hartzen dira lehendik dauden nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak, garrantzi txikikoak baitira. Baso-erabilera, batez ere, babes-eremu periferikoan garatzen da. Erabilera publikoa, gehienbat, Leitzarain ibaiaren paraleloan doan bide berdean oinarritzen da.</p> <p>Alderdi horiek kontuan hartuta, esleitutako NKNB kategoria IV. kategoria da, hots, habitatak/espezieak kudeatzeko eremua.</p>	

8.5.3 Naturagune babestuaren tipologia berria proposatzea

Leitzaran ibaiko biotopo babestua KBE izendatutako eremu baten barruan dago. Biotopoa naturagune babestuaren tipologia berri bati esleitzea aztertzen da; nolahi ere, KBEaren esleipenari eutsiko zaio.

Ondorengo tauletan, Leitzaran ibaiko biotopo babestuaren ezaugarriak eta 9/2021 Legean ezarritako tipologia berriekin duen lotura aztertzen dira. EZ ipini da, baldin eta biotopoaren ezaugarriak, aprobetxamenduak eta erabilerak ez badatoz bat ezarritako figurarekin; oster, BAI, bateragarriak badira.

21. taula. Leitzaran ibaiko biotopo babestua eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, kontserbazio-helburuei dagokienez

TIPOLOGIA	IZAERA/HELBURUAK	LEITZARAN IBAIA
Parke naturala	Eremu zabal samarrak eta gutxi transformatuak	EZ
Natura-erreserba	Neurrizko hedapena edo murriztua Ekosistema, komunitate edo interes geologikoko tokiak babestea	BAI
Natura-monumentua	Zuhaitzak, basoak, interes geologikoko tokiak, mikroerreserbak eta beste elementu batzuk	EZ
Paisaia natural babestua	Kontserbatzea eta naturaren eta kulturaren arteko interakzio harmoniatsua gordetzea	EZ

22. taula. Leitzaran ibaiko biotopo babestua eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, aprobetxamenduei dagokienez

TIPOLOGIA	APROBETXAMENDUAK	LEITZARAN IBAIA
Parke naturala	Bai (kontserbazioarekin bateragarriak)	BAI
Natura-erreserba	Mugatua, salbu eta ustiapen hori bateragarria denean	BAI
Natura-monumentua	Mugatua, salbu eta erabat koherentea bada balio edo inpaktu txikiko jarduera ekonomikoen kontserbazioarekin	BAI
Paisaia natural babestua	Bai (kontserbatzen laguntzen dutenak mantentzea)	EZ

23. taula. Leitzaran ibaiko biotopo babestua eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, erabilera publikoari dagokionez

TIPOLOGIA	ERABILERA PUBLIKOA (bisitariak)	LEITZARAN IBAIA
Parke naturala	Bai	BAI
Natura-erreserba	Ez da debekatzen	BAI
Natura-monumentua	Ez da debekatzen	BAI
Paisaia natural babestua	Ez da debekatzen	BAI

24. taula. Leitzaran ibaiko biotopo babestua eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, erabilera publikoari dagokionez


TIPOLOGIA	LEITZARAN IBAIA		
	IZAERA/HELBURUAK	APROBETXAMENDUAK	ERABILERA PUBLIKOA (bisitariak)
Parke naturala	EZ	BAI	BAI
Natura-erreserba	BAI	BAI	BAI
Natura-monumentua	EZ	BAI	BAI
Paisaia natural babestua	EZ	EZ	BAI

Egindako azterketa kontuan hartuta, 9/2021 Legearen naturagune babestuen tipologia berria, Leitzaran ibaiko biotopo babestuari egokitzen zaiona, natura-erreserba da.

9/2021 Legeak figura horietarako ezartzen duen definizioa kontuan edukita,– natura-erreserbak «neurritzko hedapena edo murriztua duten naturaguneak dira. Horrelako naturaguneak sortzearen helburua izango da ekosistema, komunitate edo elementu biologikoak babestea, baita interes geologikoko tokiak ere, zeinek horien urritasun, hauskortasun, garrantzi edo berezitasunarengatik balioespen berezia merezi baitute, eta baso heldu edo zaharrak edo baso-erreserbak edo baliokideak jaso ahal izango dira».

8.6 Deba-Zumaia arteko itsasertzeko biotopo babestua

KOKAPENA



BIOTOPO PROTEGIDO
DEBA - ZUMAIA



0 0,5 1Km

AZALERA: 4.299,66 ha



8.6.1 Informazioaren azterketa

DEBA-ZUMAIA ARTEKO ITSASERTZEKO BIOTOPO BABESTUA	
Informazio-iturriak biltzea eta aztertzea.	
Deklarazioa eta kudeaketa-tresna	
<ul style="list-style-type: none"> • 34/2009 DEKRETUA, otsailaren 10ekoa, Deba eta Zumaia arteko itsasertza Babestutako Biotopo izendatzen duena. • 33/2009 DEKRETUA, otsailaren 10ekoa, Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko Natura Baliabideak Antolatzekeo Plana onartzen duena. • 0404/LI/2021 Foru Agindua, uztailaren 28koa, Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko Biotopo Babestuaren erabilera publikoaren eta laginketa geologikoen plana garatzen duena. 	
Gunea izendatzeko irizpideak identifikatzea	
<p>Biotopo babestu izendatu da, batez ere, nazioartean berezitasun handia duten balio geomorfologikoak dituelako, bai eta inguru horretako alterazio antropogeniko eskasagatik ere, batik bat isolatuta dagoelako eta bertara iristea zaila delako. Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko ekosistema guztietan balio geologiko, paisajistiko eta naturalistiko handia duten elementuak ditu eremu horrek.</p> <p>Interes geologiko handiko gunea da, alde batetik, marearteko zabalgunearen hedadura dela-eta, flyscharen materialen higadura diferentzialaren ondoriozkoa, eta bestetik, Kretazeoaren eta Tertziarioaren arteko trantsizio-zerrenda argi eta garbi markatua dagoelako. Horrez gain, beste hainbat trantsizio markatu daude; adibidez, Paleozenoa-Eozenoa edo Goi eta Behe Kretazeoa. Barrualdera, elkarren segidako arro txiki batzuek itsas landazabaleko paisaia harmonikoa eta estetikoki erakargarria osatzen dute. Itsasorantz, biotopoa barne-uren mugaraino hedatzen da.</p>	
Gunearen helburuak (kudeaketa-helburuak)	
<p>Biotopoaren deklarazio-dekretuak honako helburu hauek ezartzen ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- Itsaslabarren aurrealdeko geologia-ondarea zaindu egingo dela bermatzea. 2.- Eremuan sortzen diren geomorfologia-prozesuak mantendu egingo direla ziurtatzea: bereziki, zabalguneari eta itsaslabarrei lotuak. 3.- Itsasertzeko paisaia kudeatzea eta paisaia hori andeatu eta sinplifikatzea ekiditea. 4.- Eremuko sistema eta prozesu ekologiko berezien iraunkortasuna ziurtatzea eta marea barneko zerrendatik hurbil daudenei arreta berezia eskaintzea. 5.- Zaintzarekin bateragarriak diren ohiko erabilerak mantendu eta garatzea. 6.- Natura-ingurunea zaintzarekin bateragarriak izango diren ikerketa eta aisialdiko erabileretarako gune izatea bermatzea. 	
<p>Erabilera bateraezinak (debekatuak). NBAP: NBAPak zonakatzearen araberako erabileren erregulazioa ezartzen du (ikus aurrerago):</p> <ul style="list-style-type: none"> - NBAP honek bultzatzen edo onartzen ez dituen erabilera guztiak debekatutzat joko dira. - Debekatuta dago bildumazaleek eta espezializatu gabeko zaleek (txangozaleek, eskola-umeen taldeek, etab.) lagin fosilak biltzea. - Debekatuta dago animaliak hiltzea, kaltetzea, gogaitzea eta urduritzea, bai eta haien kumeak, arrautzak edo habiak biltzea ere, salbu eta plan honetan jasotako kasuetan edo kudeaketa-organoak berariaz baimenduta. 	<p>Egungo erabilerak. NBAPak zonakatzearen araberako erabileren erregulazioa ezartzen du (ikus aurrerago):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Abeltzaintza- eta nekazaritza-erabilera: eremuaren erdian eta izaera estentsibokoa - Batez ere usoaren udazkeneko ehiza eta bestelako ehiza xehea. - Itsas arrantza profesionala (eta itsaskiak biltzea), batez ere aparailu xeheekin eta hondoko tertzekin aritzen diren ontzi txiki edo ertaintan, baina baita tertzeta erdi-pelagikoarekin, harri-bolakoarekin edo azaleko trebes-tretzarekin aritzen direnetan. - Aisialdiko arrantza eta itsaski-bilketa - Algorri naturaren interpretazio-zentroa: hezkuntza-jarduerak eta bisitarien kudeaketa - Zientzia- eta hezkuntza-jarduerak. <p>Baimendu daitezkeen jarduerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Helburu zientifikoetarako laginketa oro

<ul style="list-style-type: none"> - Debeekatuta dago landareak erauztea, suntsitzea edo kaltetzea, salbu eta plan honetan jasotako jardueren kasuan edo kudeaketa-organoak berariaz baimenduta. - Debeekatuta dago edozein motatako isurketak egitea. - Baso-jarduerarekin lotutako edozein praktikan, debeekatuta dago bitarteko mekaniko estentsiboak erabiltzea. - Debeekatuta dago <i>Eucalyptus</i> generoko espezieak erabiltzea antolamendu-eremuko landaketetan. - Debeekatuta dago edozein zuhaitz moztea kudeaketa-organoak berariazko baimenik eman gabe. - Debeekatuta dago egurra moztea jolas-helburuetarako - Kudeaketa-organoak debekatu eta/edo arautu ahal izango du ekosistemen beste jarduera batzuen garapen egokia eta/edo funtzionamendua funtsean aldatzen duen edozein jolas-jarduera. - Debeekatuta dago ibilgailuak aparkatzea, horretarako prestatutako guneetan izan ezik. - Debeekatuta dago ibai-ibilguetan arrantza egitea - NBAParen eremu osoan debeekatuta dago, salbuespenik gabe, inguratze bidezko arrantza profesionala. 	<ul style="list-style-type: none"> - Lagin paleomagnetikoak eta makrofossilak hartzea - Edozein eraikuntzaren diseinuak kudeaketa-organoaren aldeko txostena izan beharko du, paisaian izango duen eraginari buruzkoa. - Mahasti berriek organo-kudeatzailearen baimena izan beharko dute, paisaian izango duten eraginaren eta lurra egokitu eta gero sortutako ondorioei dagokienez. - Edozein lurzoru-aldaketa - Sua nekazaritzarako edo basogintzarako erabiltzea - Birpopulaketak <p>Antolatutako eremu osoa «ingurumen-zona sentikortzat» hartuko da Euskadiko ingurumen orokorra babesteko 3/1998 Lege Orokorren helburuetarako.</p>
--	---

Gunearen zonakatzea identifikatzea

Babes-eremu periferikoa

Natura-baliabideen babes osoa bermatzeko eta kanpotik etor daitezkeen ekologia- eta paisaia-inpaktuak saihesteko, babes-eremu periferiko bat ezarri da. Bertan, kudeaketa-organoak baimendu beharko du Deba-Zumaia arteko itsasertza biotopo babestu izendatzea eragin duten helburuak eta Natura Baliabideen Antolamendu Planean ezarritakoak lortzea eragotzi edo zaildu dezakeen jarduketara oro.

Biotopo babestuaren azalera 4.299,66 ha-koa da (3.756 ha itsas eremuari dagozkio, 495 ha lehorrekoari eta 49 ha inguru itsas-lehorreko jabari publikoari).

Erreserba-eremua

208,6 ha (140,9 ha itsasoan). Gunearen % 4,85. Itsaslabarren eremua hartzen du, 10 m-ko batimetriaraino.

Behe Eozenotik Kretazeora arteko azterketa geologikorako munduko erreferentzia den kostaldeko zatia. Balio didaktiko garrantzitsua.

Helburua: marearteko zabalguneen, itsaslabarren eta lotutako balio naturalen ezaugarriak kontserbatzea

Erabileren arauketa: Debeekatuta dago edozein motatako erabilerak, jarduerak, eraikuntza-lanak edo bestelako esku-hartze antropikoak egitea, honako hauek izan ezik:

- Kudeaketa-organoak baimendutako ikerketa, hezkuntza- eta dibulgazio-jarduerak.
- Aisia estentsiboa
- Ibilgailuak segurtasun- edo sute-arrazoiengatik ibiltzea
- **Kudeaketa-organoak berariaz baimendutako jarduerak.**

Debeekatuta dago arrantza-jarduera oro

Erabilera bereziko eremua

71,1 ha (% 1,65): Itzurun, Lapari eta Santiago hondartzak eta Errotaberri eta Elorriaga atsedeen-eremuak.

Helburua: erabilera publiko intentsiboa gune horietan biltzea.

Erabileren arauketa: honako hauek baimentzen dira, eta debekatuta geratzen dira barne hartzen ez direnak:

- Aisia estentsiboa eta intentsiboa
- Onura publikoko eraikinak eta instalazioak eraikitzea
- Airetiko eta lurpeko linea berriak eraikitzea
- Dauden instalazioak mantentzea, hobetzea eta handitzea
- Hareak lekuz aldatzea
- Hondartzetan aisialdiko arrantza baimentzen da

Itsas babeseko eremua

3.540,7 ha (% 82): barne hartzen du gainerako abrasio-plataforma, barne-uren mugaraino.

Helburua: itsasoko biodibertsitatea eta arrantzako baliabideak zainduko direla ziurtatzea.

Erabileren arauketa:

- Kontserbazioa, ingurumen-hobekuntza, ikerketa eta ingurumen-hezkuntza bultzatzen dira.
- Erabilera publiko estentsiboa
- Arrantza eta itsaski-bilketa, kirolerako bada edo izaera profesionala badu
- Debekatuta dago inguratze-arrantza profesionala

Debekatuta daude aurretik zerrendatu ez diren gainerako erabilerak

Landa-paisaia babesteko eremua

- 161,2 ha (% 3,75): laborantza- eta abeltzaintza-eremuak, landazabal atlantikoaren, baratzeen eta abeltzaintza-bokazioko lurzoruen mosaikoarekin bat datozenak, larre-eremuek hartuak.
- **Helburua: ekosistemak eta nekazaritza-paisaiak zainduko direla ziurtatzea.**
- **Erabileren arauketa:** Landazabaleko paisaia babestea sustatuko da, eta, horretarako, nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilera tradizionalak mantentzen direla zainduko da, bai eta heskai naturalak berreskuratzen eta Talaimendiko eremuko paisaia lehengoratzeko lagundu ere.

■ **Honako hauek bultzatuko dira:**

- Nekazaritza-erabilerak eta abeltzaintza-erabilerak
- Kontserbazioa, ingurumena hobetzea, ikerketa eta ingurumen-hezkuntza

Onargarriak dira:

- Aisia estentsiboa
- Dauden azpiegiturak mantentzea, hobetzea eta handitzea
- Dauden aireko lineak kentzea eta lurpeko lineak eraikitzea
- Erabilera publikoko eraikinak eta instalazioak eraikitzea, gunearen kudeaketarekin edo pertsonen segurtasunarekin lotutakoak
- Lehendik dauden eraikinak mantentzeko eta finkatzeko ekintzak eta nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien lehiakortasuna handitzeko beharrezkoak diren instalazio berriak eraikitzea.

Debekatuta daude bultzatuko diren erabileren edo erabilera onargarrien artean ez dauden erabilera guztiak.

Ekosistemak hobetzeko eremua

71,3 ha (% 1,65): Mendata eta Errotabarri erreken arroak; kontserbaziorako balio handia dute.

Helburua: baso autoktonoa eta ibai-ekosistema berreskuratzea, eta, horretarako, ibaiertzeko basoa lehengoratzeko jarduketak sustatzea eta baso autoktonoen landaketei berrekitea.

Erabilerak arautzea:

- Kontserbazioa, ingurumena hobetzea, ikerketa eta ingurumen-hezkuntza bultzatzea.
- Aisia estentsiboa.
- Nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerak.
- Dauden baso-landaketen aprobetxamendua.
- Dauden azpiegiturak mantentzea, hobetzea eta handitzea

Debekatuta daude bultzatuko diren erabileren edo erabilera onargarrien artean ez dauden erabilera guztiak

Lehengoratzeko eremu degradatua

59,7 ha (% 1,38): leheneratzeko potentziala eta ingurumen-balioa duten eremuak, aurreko kategoriakoak baino txikiagoak. Itxaspetik antolamendu-eremuaren mendebalderantz dauden baso-masak eta txilardiak dira, batez ere birpopulaketek hartzen dituztenak.

Helburua: kalitate ekologiko handiagoa lortzea.

Erabilerak arautzea:

- Kontserbazioa, ingurumena hobetzea, ikerketa eta ingurumen-hezkuntza bultzatzea.
- Flora aloktonoa deusezte eta espezie autoktonoez birpopulatzea sustatzea
- Baso-ustiapien jasangarria sustatzea
- Aisia estentsiboa
- Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako jarduerak
- Dauden azpiegiturak mantentzea, hobetzea eta handitzea
- Lurpeko lineak eraikitzea
- Erabilera publikoko eraikinak eta instalazioak eraikitzea, gunearen kudeaketarekin edo pertsonen segurtasunarekin lotutakoak

Debekatuta daude bultzatuko diren erabileren edo erabilera onargarrien artean ez dauden erabilera guztiak

Nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko eremuak

187,1 ha (% 4,35): balio txikiagoko larreak eta sastrakadiak, eta kalitate gutxiko eta ekoizpen eskaseko lurzoruen gaineko nekazaritza-eremuak.

Helburua: antolamendu-planeko helburu orokorrak lortzea

Erabilerak arautzea:

- Kontserbazioa, ingurumena hobetzea, ikerketa eta ingurumen-hezkuntza bultzatzea.
- Aisia estentsiboa
- Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako jarduerak
- Dauden azpiegiturak mantentzea, hobetzea eta handitzea
- Lurpeko lineak eraikitzea
- Erabilera publikoko eraikinak eta instalazioak eraikitzea, gunearen kudeaketarekin edo pertsonen segurtasunarekin lotutakoak
- Lehendik dauden eraikinak mantentzeko eta finkatzeko ekintzak eta nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzearen lehiakortasuna handitzeko beharrezkoak diren instalazio berriak eraikitzea.

Debekatuta daude bultzatuko diren erabileren edo erabilera onargarrien artean ez dauden erabilera guztiak

BESTE BATZUK


NBAPan ezarritako zonakatzeari hiru baldintza gainjartzen zaizkio:

- Ibilguen babesa
- Azpiegituren zortasuna
- Santa Katalina eta Talaimendiko sistema orokorrak

Beste babes-figura batzuk

- Biotopo babestuaren barruan interes geologikoko toki (IGT) hauek daude:
 - Itzurun hondartzako multzo geomorfologikoa
 - Sakonetako flysh karetsua
 - Deba-Zumaiako Goi Kretazeoko flysh hareatsua
 - Aitzandi puntako tolestura

8.6.2 NKNB kategoriaren proposamena



Balorazioa

Deba-Zumaiako itsasertzeko biotopo babestuaren izendapena, nagusiki, itsasertzeko itsaslabarrei eta abrasio- eta marearteko zabalgunee-plataforme lotutako geomorfologiak nazioartean duen berezitasunean oinarritzen da.

Itsaslabarren eta marearteko eremu hori erreserba-eremutzat hartzen da NBAPan, eta bertan debekatuta daude erauzketa-erabilera guztiak. Ostera, ikerketa, hezkuntza- eta dibulgazio-jarduerak baimentzen dira (kudeaketa-organoak baimendu behar ditu), bai eta aisia estentsiboa ere, zeinak biotopoaren % 5 baino gutxiago hartzen duen.

Beste eremu batzuk ekosistemak lehengoratzeko zonatzat hartzen dira: ekosistemak hobetzeko eremua eta lehengoratzeko eremu degradatua. Eremu horiek, oro har, 131 ha-ko azalera dute, hau da, biotopo babestuaren % 3.

Biotopo babestuaren gainerako eremuak lehorreko zein itsasoko gunek hartzen ditu, eta horietan jarduera tradizionalak (arrantza profesionala eta aisialdikoa, nekazaritza, abeltzaintza eta baso-jarduera) araututa daude, eta, lehorreko eremuaren kasuan, sustatu egiten dira, paisaia tradizionala mantentzeko eta berreskuratzeko helburuarekin. Horiexek dira paisaia babesteko eremua, nekazaritza, abeltzaintza eta landazabaleko eremua eta itsas babeseke eremua, eta, guztira, azaleraren % 90 osatzen dute.

Babestutako itsas eremua biotopoaren barruko eremurik zabalena da, eta haren azaleraren % 82 hartzen du. Eremu horretan, arrantzako eta itsaski-bilketako erabilera tradizionalak mantentzen dira (eremu horretako jarduera tradizionalen barruan sartzen dira), bai eta kirolerako arrantza eta itsaski-bilketa ere, eremu horretan oso errotuta baitaude. Paisaiaren konfigurazioaren kontzeptua, erabilera tradizionalerik lotua, argi ulertzen da lehorreko paisaian, baina ez da hain argia itsas paisaiari dagokionez. Alde horretatik, esan daiteke itsasoko jarduerak (esaterako, itsaski-bilketa eta arrantza tradizionala) mantentzeak ere izaera berezia ematen diola eremu bati, erabilera horiek inguruko tradizioaren eta kulturaren parte direnean.

Kontuan hartuta biotopo babestuaren zati handienak, alegia, % 90ek, egungo paisaia eratu duten erabilera tradizionalerik eustera bideratutako hainbat kudeaketa-helburu eta erabilera-erregimen bat dituela, guneari esleitutako NKNB kategoria V. KATEGORIA da, hau da, paisaia babestua.

NKNBren kudeaketa-kategoria hori esleitu zaio; izan ere, argi eta garbi ezarritako zonakatzea izan arren, gunearen % 75 baino gehiago antzeko kudeaketa-helburuekin kudeatzen da; kasu honetan, erabilera tradizionalak mantentzera eta berreskuratzera bideratuta dago.

8.6.3 Naturagune babestuaren tipologia berria proposatzea

Ondorengo tauletan, Deba-Zumaia arteko itsasertzeko biotopo babestuaren ezaugarriak eta 9/2021 Legean ezarritako tipologia berriekin duen lotura aztertzen dira. EZ ipini da, baldin eta biotopoaren ezaugarriak, aprobeixamenduak eta erabilerak ez badatoz bat ezarritako figurarekin; ostera, BAI, bateragarriak badira.

Naturagune babestuaren tipologia berria esleitzeko, biotopo babestuaren multzoa hartu da kontuan, haren zonakatzea edozein dela ere. Horretarako, gunea izendatzeko helburuak eta oro har eta zonakatzeari dagokionez ezarritako erabilera- eta aprobeixamendu-araubidea izan dira kontuan; zonakatzeak biotopoaren azaleraren % 75 baino gehiago hartzen du.

25. taula. Deba-Zumaia arteko itsasertzeko biotopo babestua eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, kontserbazio-helburuei dagokienez

TIPOLOGIA	IZAERA/HELBURUAK	DEBA-ZUMAIA ARTEKO ITSASERTZA
Parke naturala	Eremu zabal samarrak eta gutxi transformatuak	EZ
Natura-erreserba	Neurrizko hedapena edo murriztua Ekosistema, komunitate edo interes geologikoko tokiak babestea	BAI
Natura-monumentua	Zuhaitzak, basoak, interes geologikoko tokiak, mikroerreserbak eta beste elementu batzuk	EZ
Paisaia natural babestua	Kontserbatzea eta naturaren eta kulturaren arteko interakzio harmoniatsua gordetzea	BAI

26. taula. Deba-Zumaia arteko itsasertzeko biotopo babestua eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, aprobetxamenduei dagokienez

TIPOLOGIA	APROBETXAMENDUAK	DEBA-ZUMAIA ARTEKO ITSASERTZA
Parke naturala	Bai (kontserbazioarekin bateragarriak)	BAI
Natura-erreserba	Mugatua, salbu eta ustiapen hori bateragarria denean	EZ
Natura-monumentua	Mugatua, salbu eta erabat koherentea bada balio edo inpaktu txikiko jarduera ekonomikoen kontserbazioarekin	EZ
Paisaia natural babestua	Bai (kontserbatzen laguntzen dutenak mantentzea)	BAI

27. taula. Deba-Zumaia arteko itsasertzeko biotopo babestua eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, erabilera publikoari dagokionez

TIPOLOGIA	ERABILERA PUBLIKOA (bisitariak)	DEBA-ZUMAIA ARTEKO ITSASERTZA
Parke naturala	Bai	BAI
Natura-erreserba	Ez da debekatzen	BAI
Natura-monumentua	Ez da debekatzen	BAI
Paisaia natural babestua	Ez da debekatzen	BAI

28. taula. Deba-Zumaia arteko itsasertzeko biotopo babestua eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, erabilera publikoari dagokionez

TIPOLOGIA	DEBA-ZUMAIA ARTEKO ITSASERTZA		
	IZAERA/HELBURUAK	APROBETXAMENDUAK	ERABILERA PUBLIKOA (bisitariak)
Parke naturala	EZ	BAI	BAI
Natura-erreserba	BAI	EZ	BAI
Natura-monumentua	EZ	EZ	BAI
Paisaia natural babestua	BAI	BAI	BAI

Egindako azterketa kontuan hartuta, 9/2021 Legearen naturagune babestuen tipologia berria, Deba-Zumaia arteko itsasertzeko biotopo babestuari egokitzen zaiona, PAISAIA NATURAL BABESTUA da.


9/2021 Legeak figura horietarako ezartzen duen definizioa kontuan hartuta, paisaia natural babestuak «balio natural, estetiko eta kulturalengatik babes berezia merezi duten lurralde-eremuak dira. Hauek dira helburuak:

- a) Bereizten dituzten aparteko balio estetiko, biologiko edo geologikoak kontserbatzea.
- b) Naturaren eta kulturaren arteko interakzio harmoniatsua gordetzea toki zehatz batean, leku horretan bizi diren pertsonekin».

8.7 Itxinako mendiguneko biotopo babestua

Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko 9/2021 Legean xedatutakoaren arabera, Itxinako biotopo babestua desklasifikatzea aurreikusita badago ere, azterketa honetan sartu da, hura egokitu ahal izateko, gutxienez Gorbeia naturagune babestuko Natura Baliabideen Antolamendu Plan berria onartu arte.

KOKAPENA




BIOTOPO PROTEGIDO
ITXINA



0 0,3 0,6Km


AZALERA: 507,75 ha



8.7.1 Informazioaren azterketa

ITXINAKO MENDIGUNEKO BIOTOPO BABESTUA	
Informazio-iturriak biltzea eta aztertzea.	
Deklarazioa eta kudeaketa-tresna	
<ul style="list-style-type: none"> • 368/1995 DEKRETUA, uztailaren 11koa, Itxinako mendigunea babestutako biotopo deklaratu duena. • 227/1994 Dekretua, ekainaren 21ekoa, Gorbeia Baliabide Naturalak Antolatzeke Plana onartzen duena. • 169/2019 DEKRETUA, urriaren 29koa, zeinaren bidez onartzen baita Gorbeia Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko II. Planaren zati arauemailea, eta agintzen Parke Naturalaren eta Gorbeia ES2110009 Kontserbazio Bereziko Ereduaren (KBE) Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko II. Plana eta Kudeaketarako Gidalerroa eta Jarduketan Dokumentua osorik argitaratzeko. • 40/2016 DEKRETUA, martxoaren 8koa, Gorbeia kontserbazio bereziko eremu (ES2110009) izendatzen duena. 	
Gunea izendatzeko irizpideak identifikatzea	
<p>Biotopo babestu izendatua, batez ere bere balio geomorfologikoengatik; izan ere, Urgondar guneko kareharri asko azalatu dira, eta horrek hainbat fenomeno karstiko interesgarri eta konplexu eragin ditu. Ereduaren balioek barne hartzen dituzte haren interes geomorfologikoa, formazio karstikoengatik; horien artean, nabarmentzekoak dira Atxularreko begia, erdiko arraila handia, Axlaor troka eta Supelegor leizea. Interes hidrogeologikoa eta flora-interes handia ere badu (175 goroldio eta gibel-belar espezie baino gehiago), bai eta fauna-interesa ere, gutxienez 8 saguzar espezie daudelako bertan.</p>	
Gunearen helburuak (kudeaketa-helburuak)	
<p>Biotopoaren deklarazio-dekretuak ez du kudeaketa-helburu zehatzik ezartzen, eremuaren balioak aipatzeaz gain; aurreko apartatuan jaso dira horiek.</p>	
<p>Erabilera bateraezinak (debekatuak). Biotopoaren deklarazio-dekretuan honako hauek ezartzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Pistak irekitzea. - Azpiegiturak instalatzea. - Eraikuntza-jarduerak, baimendu daitezkeenak izan ezik. - Bertakoak ez diren flora- eta fauna-espezieak sartzea. - Lurpeko urak degradatu edo kutsa ditzaketen solidoak botatzea edo likidoak isurtzea, indarrean dagoen araudiaren arabera - Apartatu honetan zehazturik egon ez arren, babestutako biotopo honetako natur ingurunearen elementuen kontserbazioa arriskuan jar dezaketen erabilera eta jarduerak guztiak. 	<p>Biotopoaren deklarazio-dekretuan baimendutako erabilera hauek ezartzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Berariazko balioekin lotutako zientzia- eta dibulgazio-jarduerak. - Ibilgailu motordunekin egiten ez diren ibilaldiak, txangoak eta jarduerak espeleologikoak. - Artzaintza estentsiboa, gaur egungo baldintzetan. <p>Baimendu daitezkeen erabilerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Baso-masa birsortzea eta mantentzea errazteko jarduerak. - Laginak biltzea zientzia- edo hezkuntza-helburuekin. - Ehiza, ehiza-aprobetxamenduak arautzen dituen araudiak ezartzen dituen baldintzetan. - Egur-aprobetxamendua. - Lehendik dauden eraikinak kontserbatzeko eraikuntza-jarduerak. - Biotopo babestua izendatzeko unean dauden beste erabilera batzuk.
Gunearen zonakatzea identifikatzea	
<p>Guneak ez du ezarritako zonakatzerik. Biotopo babestuaren azalera 507,75 ha-koa da.</p>	
Beste babes-figura batzuk	
<ul style="list-style-type: none"> • Gorbeia KBEaren (ES2110009) barruan dago. • Gorbeia parke naturalaren barruan dago. • Itxinako karsta interes geologikoko tokia (56. IGT). 	

8.7.2 NKNB kategoriaren proposamena



Balorazioa

Biotopo babestuaren izendapenaren ardatza eremua babestea da, formazio geomorfologiko bereizgarria baita, eta, gainera, beste kontserbazio-balio batzuk ere lotzen zaizkio, batez ere bertako flora eta faunagatik.

Baimendutako erabilerek barne hartzen dituzte gunea izendatzeko unean zeuden jarduera guztiak, bai eta erabilera publikoa ere, mendi-ibiliak eta espeleologia barne, lekuaren kontserbazioarekin bateragarriak direnak.

Alderdi horiek kontuan hartuta, esleitutako NKNB kategoria natura-monumentua (III. kategoria) da; izan ere, florako eta faunako elementu bereziak babesteko elementu geomorfologiko bereizgarria da, eta erabilera tradizionalak mantentzen ditu, bai eta erabilera publikoa ere.

8.7.3 Naturagune babestuaren tipologia berria proposatzea

Ondorengo tauletan, Itxinako mendiguneko biotopo babestuaren ezaugarriak eta 9/2021 Legean ezarritako tipologia berriekin duen lotura aztertzen dira. EZ ipini da, baldin eta biotopoaren ezaugarriak, aprobetxamenduak eta erabilerak ez badatoz bat ezarritako figurarekin; ostera, BAI, bateragarriak badira.

29. taula. Itxinako mendiguneko biotopo babestua eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, kontserbazio-helburuei dagokienez

TIPOLOGIA	IZAERA/HELBURUAK	ITXINAKO MENDIGUNEA
Parke naturala	Eremu zabal samarrak eta gutxi transformatuak	EZ
Natura-erreserba	Neurrizko hedapena edo murriztua Ekosistema, komunitate edo interes geologikoko tokiak babestea	EZ
Natura-monumentua	Zuhaitzak, basoak, interes geologikoko tokiak, mikroerreserbak eta beste elementu batzuk	BAI
Paisaia natural babestua	Kontserbatzea eta naturaren eta kulturaren arteko interakzio harmoniatsua gordetzea	EZ

30. taula. Itxinako mendiguneko biotopo babestua eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, aprobetxamenduei dagokienez

TIPOLOGIA	APROBETXAMENDUAK	ITXINAKO MENDIGUNEA
Parke naturala	Bai (kontserbazioarekin bateragarriak)	BAI
Natura-erreserba	Mugatua, salbu eta ustiapen hori bateragarria denean	BAI
Natura-monumentua	Mugatua, salbu eta erabat koherentea bada balio edo inpaktu txikiko jarduera ekonomikoaren kontserbazioarekin	BAI
Paisaia natural babestua	Bai (kontserbatzen laguntzen dutenak mantentzea)	EZ

31. taula. Itxinako mendiguneko biotopo babestua eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, erabilera publikoari dagokionez

TIPOLOGIA	ERABILERA PUBLIKOA (bisitariak)	ITXINAKO MENDIGUNEA
Parke naturala	Bai	BAI
Natura-erreserba	Ez da debekatzen	BAI
Natura-monumentua	Ez da debekatzen	BAI
Paisaia natural babestua	Ez da debekatzen	BAI

32. taula. Itxinako mendiguneko biotopo babestua eta naturagune babestuen tipologia berriak aztertzea, erabilera publikoari dagokionez

TIPOLOGIA	ITXINAKO MENDIGUNEA		
	IZAERA/HELBURUAK	APROBETXAMENDUAK	ERABILERA PUBLIKOA (bisitariak)
Parke naturala	EZ	BAI	BAI
Natura-erreserba	EZ	BAI	BAI
Natura-monumentua	BAI	BAI	BAI
Paisaia natural babestua	EZ	EZ	BAI

Egindako azterketa kontuan hartuta, 9/2021 Legearen naturagune babestuen tipologia berria, Itxinako mendiguneko biotopo babestuari egokitzen zaiona, natura-monumentua da.

9/2021 Legeak figura horietarako ezartzen duen definizioa kontuan hartuta, «natura-monumentuak dira, funtsean, babes bereziaren xede izatea merezi duten berezitasun, urritasun edo edertasun nabariko formazioek eratutako naturako guneko edo elementuak. Bereziki, aparteko zuhaitzak eta basoak; habitat, fauna eta floraren mikroerreserbak, eta interes geologikoko tokiak, beren ezaugarriek horrela aholkatzen badute».

9 Ondorioak

Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan dauden zortzi biotopo babestuetako bakoitzaren azterketa xehatuari eta egindako landa-lanari esker, babes-figura hori eguneratu ahal izan da, EAEko natura-ondarearen kontserbazioari buruz indarrean dagoen legeriarekin bat etorriz (9/2021 Legea).

Zortzi gune horiek babesteko tipologiaren proposamenari jarraikiz, horietako lau paisaia natural babestuaren figurari esleitzea proposatu da (Añanako diapiroa, Inurritza, Meatzaldea eta Deba-Zumaia), guztiek elkarreragin harmoniatsuaren ondoriozko balio naturalak dituztelako eta paisaia berezi eta bereizgarria eratu duten erabilera tradizionalen kontserbazioarekin bateragarriak direlako. Beste bi gune natura-monumentu gisa esleitzea proposatzen da (Gaztelugatxe eta Itxina mendigunea), formazio geologiko bereziei lotutako ezaugarriak dituztelako. Azkenik, Leitzaran ibaia eta Guardiako aintzirak natura-erreserbaren figurari esleitzea proposatzen da, natura-balio handiko guneak baitira, eta erabilerak oso mugatuta daudelako, edo ez dagoelako erabilerarik.

Kudeaketa-gomendioei dagokienez, bai Inurritzako biotopo babestuarentzat bai Leitzaran ibaikoarentzat, haien mugak zabaltzea aztertzea gomendatzen da, barruan hartzen dituzten KBEetako mugekin bat etor daitezten, eta hala, bi eremu moten kudeaketa erraztu dadin. Bestalde, Inurritzako biotopoari dagokionez, habitaten (itsaslabarrak eta dunak) eta erabileren (golf-zelaia) heterogeneotasuna dela eta, eremua zonakatzea gomendatzen da, jarduerak kudeatzeko eta antolatzeo helburuak zehazteko, zona bakoitzaren ezaugarrien arabera.

NKNB kudeaketa-kategoriei dagokienez, kategoria horiek ezartzeak 42/2007 Legearen 51.2 artikulua betetzeko aukera ematen du. Artikulu horrek ezartzen duenez, Naturagune Babestuen Espainiako Inbentarioaren, Natura 2000 Sarearen eta nazioarteko tresnek babestutako eremuen barruan, *«homologazioari eta arlo horretako nazioarteko konpromisoak betetzeari dagokienez, Naturagune Babestuen Espainiako Inbentarioan inskribatutako naturaguneak, jatorrizko izenarekin batera, nazioartean ezarritako kategoriei esleituko zaizkie, bereziki Naturarako Nazioarteko Batasunak (NKNB) ezarritakoei»*. Esleipen hori funtsezko baldintza da datuen elkarreragingarritasunerako eta datuak nazioz gaindiko datu-baseetan integratzeko: CDDA (Common Database on Designated Areas) eta WDPA (Eremu Babestuen Munduko Datu Basea), batez ere.

Espainiako Estatuan askotariko babes-figura legalak daude; ondorioz, are beharrezkoagoa da NKNB kategorien sistema ezartzea, eta hala, guneen arteko analogiak egin ahal izatea, komunikazioa eta truke profesionalak errazte aldera.

NKNBren kudeaketa-kategoriek aukera ematen dute naturagune babestu guztiak argi eta garbi sailkatzeko, gune horien kudeaketa nora zuzentzen den adierazten duen kategoria bat ezarritik nazioartean.

Ildo horretan, Estatuko legeria betetzeko, gomendatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko gune babestu guztiak NKNBren kudeaketa-kategoria bati esleitzea, oraindik halakorik esleituta ez duten guztien kasuan.

Aztertutako zortzi biotopo babestuetatik hiruri paisaia babestuaren V. kudeaketa-kategoria esleitu zaie (Añanako diapiroa, Meatzaldea eta Deba-Zumaia), beste biri habitatak/espezieak kudeatzeko eremuaren IV. kategoria (Inurritza eta Leitzaran), biri natura-monumentuaren III. kategoria (Gaztelugatxe eta Itxina), eta, azkenik, Guardiako aintzirei natura-erreserbaren kategoria.

Hurrengo taulan laburbiltzen dira zortzi biotopo babestuetarako proposatutako kategoriak eta tipologiak.

33. taula. Babestutako biotopo bakoitzerako NKNBren eta naturagune babestuaren tipologia berriaren kudeaketa-kategoriak esleitzea, Euskal Autonomia Erkidegoko 9/2021 Legearen arabera

BIOTOPO BABESTUA	NKNB KATEGORIA	TIPOLOGIA (9/2021 LEGEA)
Añanako diapiroa	V. Paisaia babestua	Paisaia natural babestua
Gatzelugatxe	III. Natura-monumentua	Natura-monumentua
Inurritza	IV. Habitatak/espezieak kudeatzeko eremua	Paisaia natural babestua
Laguardiako aintzirak	I.a Natura-erreserba zorrotza	Natura-erreserba
Meatzaldea	V. Paisaia babestua	Paisaia natural babestua
Leitzaran ibaia	IV. Habitatak/espezieak kudeatzeko eremua	Natura-erreserba
Deba-Zumaia	V. Paisaia babestua	Paisaia natural babestua
Itxinako mendigunea	III. Natura-monumentua	Natura-monumentua